

ARRASATE

PRESS

Arrasate 1991ko Abenduak 6, 129. zenbakia


Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



OLATZ ARKAUZ
Anaia
Parisen preso

San Nikolas

Txikiek kantuan eske eta jolas



A R R A S A T E
K I R O L A K

Kontzeziño, 8 ARRASATE. Tfnoa: 79 46 12

Z


oritxarrez gaur egun botika batera sartzerakoan ez ditugu sasoi batean apale-tan ondo eta zuzen ikusten ziren ontzi dotoreak ikusten. Horren ordez, apala guztiak botika, kaxa eta mehetzeko zer den ona edo aurpegiko granoak kentzeko zein krema erabili adierazten duten iragarkiz beteta daude. Lehen eta orain pisuak eta neurtzeko aparailuak daude; lehen-goak oso arruntak ziren, baina beren lana betetzen zuten. Gaur egunekoak makina xeblete eta moder-



noak dira, pisua eta altuera tekla batzuk sakatuz ematen dituztenak; halako altuerari nolako pisua dagokion ere ematen dute.

Gaur egun botikek lehen baino aukera gehiago dute, baina ez dago dudarik estetika aldetik zeintzuk diren politagoak.

Jabier



Patterncam

**EREDUAK,
MAKETAK ETA
KONTROL-TRESNERIA
CAD-CAM
BIDEZ**

Musakola auzoa, 26
Kataide Industrialdea. 15, pabilioia. Tfnoa: 77 08 30. Faxa: 77 06 06
ARRASATE

ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Azoka kalea, 1 / 20.500 ARRASATE.
Tfnoa: 77 05 65 Faxa: 77 09 40

Laguntzailea:

Arrasateko Udala

Zuzendaria:

Iñaki Mendiguren

Erredakzioa:

Beñardo Kortabarria, Agurtzane Loidi

Publizitatea eta harpidetzak:

Amaia Sanz
Tfnoa: 77 08 15

Maketazioa:

Goio Arana

Erredakzio-kontseilua:

Jose Felix Diaz de Tuesta, Harry Zاراia,
Asier Aranguren, J. Velez de Mendizabal.

Kolaboratzaileak:

Mikel Irizar, Karmele Zuazubiskar, Juan Martin
Elexpuru, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso,
Gerardo Markuleta, Estepan Plazaola, Jesus
Mari Garai, Juanito Leibar, Jerardo Elortza,
Blanka Jauregi, Klarion Taldea, Joseba Vallés,
Karmelo Uribarren, Iñaki Aranburu,
Hankamotz, Maite Toledo, Atalaitaikoan, ASA
taldea, Xabin Arrieta, Txipi Ormaetxea,
Arantxa Ozaeta.

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

Copyright:

ARRASATE PRESS

Tirada: 5.800 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien
erantzunkizunik.



ARRASATE PRESS paper birziklatuan
egiten da.

Mondragón eta Psikiatrikoa

Zenbait aste atzerago, Justo Alzua psikiatrak "Arrasate eta psikiatria" titulupean artikulu polit bat argitaratu zuen. Irakurri zuenak gogoratuko duen lez, gure herrian gaixotasun horren aurrean izan ohi dugun jarrera azaltzen zigen Justo adiskideak. Alderdi horretatik, Arrasate inork baino hobeto ezagutzen duen pertsonaietako izanik, laburra iruditu zitzaidan artikulua. Askok eskertuko genioke maiztasun handia-
goz idatziko balu.

Azalpen hartan bilduriko ideia batzuk ukitu nahi nituzke, adituak eman zituen iritziak osatu asmoz. Esaten zuen, "Mondragón" hitzak gure solaskideengan arrasatearrenganako katxondeo-garra pizten duela.

Santa Agedako psikiatrikoak estatu osoko gaixoak hartzen zituen garaietan askoz hedatuagoa zen "munduan zehar" gure txoko honen ospea. Ezpairik gabe, izaera entzute-tsu hark gaurdaino luzatu du bere itzala. Unibertsitari-ikasketei Donostian ekin nienean, nire ikaskideek — gipuzkoarrak ia denak— Arrasateri buruz zekiten apurra bertan erotxe bat bagenuela zen. "Orquesta Mondragón" izeneko musika-taldea iritzi horren eredu da.

Herriko bitxikeria normalizat hartu da gaixoa, psikiatrikoa zabaldu zenetik. Haurtzarotik oroitzen naiz

haiekiko, indibidualki zein talde bezala, izan dugun jarrera hurbilko-rra. Ostegun arratsaldeetan, Santa Agedako futbol zelai zein frontoian izan ohi genituen partidua datozkit gogora, gaixoen txalok gure jokaldiak garaiko idoloenekin alderatzeraino eramaten gintuztelarik. Astegunetan, berriz, herriko kaleetan agurtzen genituen gaixo haiek... zeintzuen izenak bagenekizkien. Haietako batzuek, bestalde, mirespena sortzen zuten gudan: Don Galo, artista itzela billarrean; orduak ematen genituen hari begira, Centro de Acción Católica-aren aretoan.

Duda izpirik ez, arrasatearrok era akiño jasankorrez eraman dugu psikiatrikoaren izana. Justok bere artikuluan adierazten zuenez, guri gehiago kostatzen zaigu gaixotasuneko txertatuta ez gaudenik onartzea. Baliteke. Dena den, txantxetan besterik ez bada ere, xamur onesten dugu —kanpotarren adarjotzeari erantzunez, batipat— arrasatearrok espezial xamarrek gabela. Eta, zer arraiol!, benetan espezialak gabela frogatzeko, mende honen hasieratik gure herriak industria, hezkuntza eta kultura arloetan suposatu duena aztertzea besterik ez da egin behar. Izango al du zer ikusirik psikiatrikoak gure izaera berezi horrekin?

JOSE MARI VELEZ DE MENDIZABAL

Memesa
79 42 22

Onduline



TXOMIN HERIZ

eraikuntzarako materialak

Biltegia: Bidekruzeta, 1 Tfnoa: 79 23 18



gili gili

Iturriotz, 9 Tfnoa: 79 94 57



Liburu eta oparidenda

Iturriotz, 4 Tfnoa 79 14 84

ZANGITU
C. B.

PINTURAK ETA
PAPER PINTATUAK

Olarte, 29
Arrasate
Tfnoa: 79 91 82

D. Irala
Bergara
Tfnoa: 76 19 54

ARAMAIO
okindegia

Maisu Guridi, 3
Tfnoa: 79 36 46

TTUKUN

Fotokopiak
Enkuadernazioak
Planoen erreproduzioa
Offseta

Ferrerias, 23
ARRASATE Tfnoa: 79 46 62

Beste iritzi bat

Arrasate Press-en Iñaki Mendigurenek Jabier Ozaetak EGUNKARIAN egindako idazkiari egin zion erantzun-eskutitza irakurri eta gero, neure aportazioa egin eta eritzia eman gura izan dut.

Lehenbizi, hizkuntz kodeari dagokionez, ahozkoa eta idatzizkoa bereiztu beharra dagoela uste dut. Idatzizko kodea, batez ere, laneko idazki, eskutitz, egunkari, liburu, irakaskuntza etab. etan erabiliko dugu. Gainera, gai honi dagokionean, salbuespenak salbuespen, hori zalan-tzan jartzen dutenak gutxi direla baieztatu dezakegu. Puntu hau oso garbi izan behar dugu euskaldunok, "euskara batu" hori ez bait da euskaldunok bereizteko, batzeko baino. Kontutan izan euskara batua herri-euskarak osatzen duela, euskaldunok batu egiten gaituela eta ez bereiztu.

Euskara batuak nahiz bertakoak (Aretxabaleta, Eskoriatza, Aramaixo, Arrasate, Gatzaga... inguruko guztiak, jakina) batasuna eta elkarlana sendotzeko balio behar digu. Beraz, hortik zehar (hortizier) banatu eta sakabana-tuta gauden euskaldun guztiok batu eta elkarrekin elkarlanean aurrera egin behar dugu, euskaraz bizitzen ausartu behar dugu, ideologia, politikakeriak... etab. alboratu utziz eta lehen esan legez, "euskarari eutsiz", horixe bait da batzen gaituena eta batuko gaituena. Horregatik, euskara batuak batzen gaituen legez, bertako euskarak ere zergatik ez eduki lekuri gure idazkietan. Herri-euskara, euskara batua aberasteko daukagun tresnarik egokiena da, zalantzarik gabe, eta horretaz baliatuz, guzti hori erabaki eta zehazteko unerik aproposenean gaude. Lehenik, nola egin zehaztu beharko dugu eta ondoren, zein esparrutan erabili.

Ahozkoari dagokionez, lehenengo agerian daukagun konplexua baztertu behar dugu: zalantzarik gabe, lehen pausoa bertako euskara erabiltzeko daukagun konplexua gainditu behar dugu. Beraz, edozein leku eta unetan bertako euskaraz berba egiteko ez izan beldur. Eta gauza berdina batuan berba egiteko. Ez dugu konplexurik izan behar; bakoitzak dauka bere esparrua, baina oraindik definitzeke ditugu. Kontuan hartu herri-euskarak standarra edo euskara batua osatu behar duela, eta biak osagarriak direla.

Ez nuke amaitu gura esan barik, batua ere ikasi eta erabili egin behar dugula, aldizkari, egunkari, irrati, telebista, etab. etan; izan ere, Euskal Herri mailan behar dugun eredia horixe da. Orduan, batua eredu nagusia izango da eta bertakoa, euskalkia, herri-eredua.

Eztabaida puntu honetan kokatuko nuke: aurrerantzean, zein une, momentu, esparru, eremutan erabili behar dugun euskara standarra eta zeinetan bertakoa, euskalkia. Horixe finkatu beharko genuke lehen-lehenik eta horrekin batera, herri-euskara bateratzeko bideak eman. "Erabili ezean ezin finkatu erizpiderik". Hortxe ditugu Arrasate Press eta ATB, bizi-bizirik gure herrian. Esaterako, ATBk zergatik ez bere berriak bertako euskararen ez eman? Zein da oztipoa? Zergatik ez erabaki zer egin daitekeen Arrasate Press-en bertako euskararen? Nire ustez, honelako urratsik ez da eman eta badakit oraindik asko zehaztu beharko dela, batez ere, inguruko euskara nola batu eta zein erizpide erabili horretarako. Denok bat eginez gero, herri-euskara eta euskara batua erabiltzeko bideak zehaztu eta ezarriko ditugu.

Karmelo Uribarren



PAZI-OLA SA

GALDARAGINTZAKO LANTEGIA


Zaldispe kalea, 2 ARRASATE Tfnoa 79 29 91

Zerk ematen dizu beldur handiena eta poz handiena?



Bego Zubia
(Kazetaria)

Beldur gehien ematen didana mina da, min fisikoa. Poz gehien, neure buruarentzat Gabonetako loteria tokatzeak eta besteentzat presoak kalean ikusteak.



Mikel Lasar
(Ikaslea)

Beldur gehien, ikasketak bukatu eta gero bizimodua zein eratarara ateratu aurrera, kezka hori daukat. Poz gehien lagunek ematen didate, lagun onak izan eta jendearekin ondo konpontzeak.



Aurelio Delgado
(Langilea)

Gaur egun, langabeziak ematen dit beldurrik handiena eta poz handiena hartuko nuke kaleetan drogarik ez balego.



Juli Barriuso
(Etxekoandrea)

Beldurrik handiena gerrak ematen dit; poza, berriz, ba horretarak, inon gerrarik ez egoteak eta jendea gustorara bizitzeak, baita gaixotasunak ez egoteak ere.



Oihane Aranburu
(Ikaslea)

Beldur gehien heriotzak ematen dit eta poz handiena kurtso osoa aprobatazeak.



Miguel Angel Ballesteros
(Umea)

Beldurra? Ba ... ez dakit, iluntasunak! Pozik handiena erregaloak egiten dizkidan hartzen dut, panpinak eta horrela.



Notario Etxagibel (Musakola Auzoa)
Tfnoak: 79 58 11 / 79 59 76

Gauzak gordetzeko kutxa metalikoak
Otzaratzarrak
Giltzak gordetzeko armairuak
Erremintak eramateko gurdiak
Erremintak gordetzeko armairuak
Lan egiteko aulkiak

PUB HAIZEA



ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

Zerbitzuak:

- * Diagnostikoa - Orientazioa
 - * Estimulazio goiztiarra
 - * Erreabilitazio funtzionala (Psikomotritzitatea eta hizkuntz berreziera)
 - * Logopedia
 - * Laguntza-terapia
 - * Mota guztietako eskola arazoak, enuresia
- (Ohe-bustitzea), eukopresia

Ignazio Zuloaga kalea, 10
ARRASATE TFNOA: 79 48 77

BEHARREZKO TELEFONOAK

ERITETXEAK

Arrasateko Eskualde-Ospit.	79 53 00
Igualatorioa	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea	
(gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11

GURUTZE GORRIA

Bergara	76 55 76
---------------	----------

DYA

Antzuola	76 62 91
----------------	----------

ANBULATORIOAK

Arrasate (Larrialdiak)	79 13 57
(Txanda hartzeko)	77 03 46
	77 07 21
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 98 58
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio	(945) 45 51 16

ANBULANTZIAK

Gipuzkoako ambulanziazak	45 87 44
--------------------------------	----------

UDALTAINGOAK

Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	79 03 22

ERTZAINZTA

Arrasate	79 71 99
----------------	----------

SUHILTAILEAK

Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile	
burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea	78 28 00

MATXURAK

Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (iberduero)	79 05 81
Gasa	900 40 05 23
	79 78 44
	79 76 78

GARRAIOAK


Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19

HIRUGARREN ADINARENTZAKO ZENTRUAK

Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57

KONTSUMITZAILEARENTZAKO INFORMAZIOA

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak	79 87 77
--	----------



5

OSTEGUNA

- Zinea: Alai: "Robin Hood" (5-7.30-10)
- Kontzertua: Arrasate Musical eta Gasteizko Manuel Iradier Abesbatzarekin, Mozart-en Requiem-a, iluntzeko 8etan parrokian.
- Goardiako farmazia: Egunez: Azkoaga, Ferrerías. Gaeuz: Estella, Bergara.

6

OSTIRALA

- Zinea: Alai: "Robin Hood" (5-7.30-10).
- San Nikolas eguna: Bolo-boloa Herriko Plazan, eguerdiko 12etan 10 urtetik behar-rakoentzat; 12.30etan gain-nontzekoentzat.
- Gipuzkoako XII. Akordeoi Jaialdi - Lehiaketa, Batxilergo Institutuan egun osoan zehar.
- Goardiako farmazia: Egunez: Musakola. Gaeuz: Mozos, Bergara.

Kirol Agenda

Futbola

Igandean, arratsaldeko 3.30etatik aurrera Atxabaldeko futbol-zelaian, Mondra-Gernika partida.

Futbitoa

Ostjiraletik igandera bitartean, Zaldibarko Txapelketaren barne partidu ugari.

9

ASTELEHENA

- Zinea: Alai: "Querido intruso" (7-9.30)
- Goardiako farmazia: Egunez: Aurora Ruiz, Maala. Gaeuz: Puy, Bergara.

10

ASTEARTEA

- Zinea: Alai: "Querido intruso" (7-9.30)
- Sukaldaritza ikastaroa: "Gabornetako jaki bereziak", Torre elkartean, 3.30etan.
- Goardiako farmazia: Egunez: San Andres. Gaeuz: Guallar, Bergara.

11

ASTEAZKENA

- Hitzaldia: "Gabornetako etxe apainketak", AEDn 3etan.
- Goardiako farmazia: Egunez: Azkoaga, Ferrerías. Gaeuz: Estella, Bergara.

Saskibaloia

Centraljet Euskal Air - Muebles el Paraíso taldeen arteko partidua, larunbatean Musakolako kiroldegian arratsaldeko 6etatik aurrera.

Pilota

Iturripeko frontoian, Arrasate eta Donostiako Errealeko pilotarien arteko partiduak, goizeko 11etatik aurrera.

Hitzaldia

• Gabonetako etxe-apainketa

AEDko EKIN emakume-taldeak antolatuta abenduaren 11an arratsaldeko 3etatik aurrera eta AED elkartearen Gabonetako etxe-apainketari buruzko hitzaldia emango du Rosarito Garitanok, Lasagabaster denakoko dekoratzaileak.

Ikastaroa

• Sukaldaritza

EKIN emakume-taldeak antolatzen dituen ikastaro, hitzaldi, ihardunaldi eta mahainguruak auzoetara eramateko asmoa dago. Auzoetako jendeari ere, euskaraz eskainitako zerbitzu hauetan parte hartzeko aukera ematea da helburua. San Andres auzoan sukaldaritza-ikastaro batekin emango diote hasiera etapa berri honi, horretarako, Arantzazuko Zelaizabal jatetxe ospetsuko sukaldaria den Alberto Elorza etorriko da "Gabonetako jaki bereziak" gaia teorikoki eta praktikoki aurkeztera. Ikastaroa abenduak 10, astearte, San Andreseko Torrepe Elkartearen izango da arratsaldeko 3.30etan.

Baita ere jakin erazi, urtarrilean eta otsailean ere, sukaldaritza-ikastaro honek jarraipena izango duela: urtarrilaren 14, 21 eta 28an eta otsailaren 4, 11, 18 eta 25ean.



Mozart-en Requiem

Parrokian, Arrasate Musikal-en eskutik

Arrasate Musikal orkestra sinfonikoak ostegunean, hilak 5, arratsaldeko 8etan Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokian kontzertua antolatu du Amadeus Mozart-en heriotzaren 200. urtemuga ospatzeko. Kontzertuan honako talde hauek parte hartuko dute: Manuel Iradier abesbatzak, Arrasate Musikal orkestra sinfonikoak, bakarlari laukotean: sopranoa, M^a Cruz Ormazabal; kontraltoa, Marta Knörr; Tenorra, Jose Antonio Vega eta baxua, Pablo Pascual.

El Rapto del Serrallo Obertura KV384 Arrasate Musikal orkestra sinfonikoak joko du. Hossanna, Benedictus eta Kyrie Eleison Manuel Iradier Abesbatzak abestuko ditu. Requiem en Re Menor KV626, abesbatzak, orkestra sinfonikoak eta bakarlari laukoteak abestuko dute. Azkenik, Aita Gurea, Abesbatzak eta Orkestak abestuko dute.

• Drogomenpekotasunaren prebentzioa

Abenduaren 11tik aurrera, Drogomenpekotasunerako prebentzio-zerbitzuak antolatuta, *Gurasoentzako Osasun Heziketarako eta Drogomenpekotasunen Prebentziarako ikastaroa* emango da.

Aipatutako ikastaroan parte hartu nahi duten guztiek Drogomenpekotasunerako Prebentzio-zerbitzuan izena eman behar dute. Hori egiteko 79 41 39 telefono zenbakira deitzea nahikoa da, edo bestela Drogomenpekotasunaren aurkako Zerbitzuaren bulegora joan, Arrasate Pasealekuko hiruga-

ren zenbakiko etxabehera.

Jaiak

• San Nikolas eguna

Urtero bezala, abenduaren 6arekin batera, San Nikolas ere iritsiko da. Behar bada, ez lehen zuen indarrez, baina aur-



ten ere Arrasateko umeak etxez etxe kantu eta eskean ikusteko aukera izango da seguruen. Antolatuta dagoenarekin bakarrik konformatzen direnentzat, Udalak Bolo-Boloa antolatu du: eguerdiko hamabi t'erdietan hamar urtetik beherakoentzat eta hamabi t'erdietan adin horretatik gorakoentzat. Umorez daudenak, seguruen eguerdia aurrretik ekingo diote San Nikolas eguneko eskeari.

• Santamasak

Oraindik denbora asko falta da Santamas jaiei hasiera eman diezaioten, baina egitarauaren arabera badira aurreratu daitezkeen gauza batzuk. Aurten, Santamas jaietarako prestatu duten egitaraua bost egunetara luzatuko da, 14, 15, 20, 21, eta 22ra; ahaztu barik, segituan Txoronpio eta Olentzero ere etorriko direla.



Santamasetako egitarauari dagokionez, esan behar ez dagoela aparteko nobedaderik, dantza askatuko txapelketa ez bada behintzat. Urtero moduan, hor izango dira pilota partiduak, dantzaldiak, Santamas krossa, trikitaliak, gaiteroak, azoka, herri-kirolak, txerriaren erakusketa eta zozketa, eta herri-bazkaria. Ez dago dudarik, aurten ere Santamasak ohi den bezalako giro onean igaroko dira. Ea eguraldiak laguntzen duen iaz beste.

“.....
Jose M. Arizmendiarieta, Inkonformista.

Bere inkonformismoak abstrakzioaren, espekulazio hutsaren atzaparretatik babesten du, 1950-60 hamarkadan apaizgoa gorputz/arima dikotomia bitxiaren babesera bizi zenean; errebelatu egiten da koartada saduzear horren aurrean eta gizarte partizipatiboago eta berdintsuago baten aldeko borrokan murgiltzen da.

“Demokratizatzeko, jakintza sozializatu behar da” lemapean, eztabaida teologiko sutilak alde batera utzi eta, zatituta, hezkuntz eta ekonomi egiturarik gabe zegoen herriaren errealitate gordinari egiten dio aurre.

Bere ingurukoarekin konprometitua eta praktikoa, ez dio zirrizturik uzten sinislearen espekulazio iheskorriari, baizik eta mugatu egiten du, esatean:

“Gure oroitzapenak daudeneko iraganaldiaren eta itxaropenak kokatzen dituguneko etorkizunaren artean, eginbeharrez beteriko orainaldia dugu”, eta azpimarratzen du “atsedena, azken Parrusian izango dugu atsedena”.

(Jesus Larrañaga Lizarralde. DEIA: 1991-XI-29)

“.....
Dena ez da arrosa kolorekoa, oraindik zeregin handia dago HIESaren aurkako borrokan, baina gaixook itxaropenerako eskubidea dugu.

... Drogaren morroi zarenean, gainerako guztia sekundarioa da, heriotza bera ere bai.

... Beharrezko neurriak —ezagunak direnak— hartzen badira, eta jendeak ez badu arriskuzko praktikarik egiten, desagertuko da HIESA.

... “jendearen hipokresia, diskriminazioa, gartzeletako egoera eta Hirugarren Mundukoa, seropositiboak herrialde batzuetara joateko debekua eta berauen kriminalizazioa” salatzen du”.

(Jon Salaberri. EL MUNDO: 1991-XII-1)



Zein ondorio aterako zenuke 3.adinerako antolatu dituzuen Antzerki-Ihardunaldiei buruz?

Bihelburu geneuzkan, bata barrura begira eta bestea kanpora begira. Barruko asmoa gaixoen artean obra dinamizatzea zen; azkenean barruko 50en bat pertsona ibili dira antolatzen; beraz helburu hau bete dela esan daiteke. Kanpora begira, berriz, asmoa kanpoko jendearekin konektatzea zen, Autonomi Elkarteko eta Nafarroako hirugarren adineko hainbat egoitzetatik etorri da jendea. Guztira 2.100 pertsona inguru pasatu dira hemendik egun hauetan.

Beste ondorio bat aipatzekotan, prentsan izan duen oihartzuna, euskaraz zein gaztelaniaz idatzi da honi buruz eta egunkari gehienetan azaldu da, Arrasate Press eta Arrasate Telebistaz gain.

Antzerki-lanei dagokionez, nahiko luzeak izan dira eta ondo antzestu dituzte; gainera, kontuan hartzekoa da talde guztietako bataz besteko adina 75 urtetik 80 urte artekoa zela. Hainbeste urte izateko, aipatzekoa da taldeek izan duten umore ona eta jarrera baikorra.

Herriko jende gehiago ere etor zitekeen, baina garrarioa zela eta jende asko ezin izan da etorri, herritik ospitalera 5 kilometro bait daude. Datorren urtean ez dakigu antolatuko diren edo ez, baina antolatzen baditugu azken puntu hau kontuan hartu beharko da, nahiko penagarria bait da jende gehiagok etorri nahi izatea eta horregatik ezin etortzea.

VICTOR LARRINAGA,
AITA MENNIKO ANIMADORE SOZIOKULTURALA

ARRASATE PRESS

77 05 65

ARRASATE HOTELA

Biteri, 1 Tfnoa: 79 14 16


MUSAKOLA OSTATUA
Taberna
Jatetxea
Bazkariak
Bodak
Banketeak
Gelak
Gipuzkoako Etorbidea z/g
Tfnoa: 79 20 50

BIONAS

Zurgin Kantoi, 2 Tfnoa: 79 20 04 ARRASATE



Laugarren eta bostgarren aleetako azalak



Jazten 5. zenbakia kalean

Munduan dauden hizkuntzei buruzkoa

Durangoko azokarako *Jazten* 5. alea kaleratuko da *Munduan, ele aniztasuna nagusi* izenburupean. Azokan bertan 4. alea eta azken hau izango dira salgai. 4. aleak *Gazteak eta euskara* izenburua darama, eta lau artikuluz osatua dago. Lehenengoa, Fermin Muguruza euskaldun osoa: izan eta esan. Bigarrena, autoeztabaida. Hirugarrena, egin ahal izatetik, benetan egin nahi izatera. Eta laugarrena, ez jakitetik erabili ahal izatera, eta erabili ahal izatetik erabili nahi izatera. 5. alea, berriz, hiru artikuluz

osatua dago: lehenengoa, Munduko hizkuntzak, bigarrena, Esperantoaren nondik norakoa eta hirugarrena azkenik, Egungo estatu politikoetako hizkuntzak. 60 orrialde izango ditu eta mapa eta ilustrazio askorekin, beste aleen modura 300 PTAtan salduko da.

Bestalde, ahal bada, AEDk soziolinguistika bultzatzeko sortutako proiektu honen 6. alea urtea bukatu aurretik kaleratzeko asmoa dago. Harpidunekin hartutako konpromezua beteta gelditzen da horrela.

Azken erreskate-ahalegina

Pedro Aranburuzabalaren gorpua aurkitzeko azken ahalegina egingo da asteburu honetan, hilaren 6an hain zuzen. Beti bezala ahalik eta jende gehien agertzea komeniko litzateke, kostalde osoa miazteko asmoa bait dago.

Bailarako ekologistak

Bailarako ekologistak bide berri gehiago egitearen aurka azaldu dira. Arrasateko eta Bergarako Udalei eta beste erakundeei eskatzen diete jarrera sendoak mantentzea Etxezarreta parke natural moduan gordetzea nahi bada.

Gobernu-Batzordeko erabakiak


Astleheneroko Gobernu-Batzordearen bileran ez zen aparteko erabaki garrantzitsurik hartu. Aipagarrienetarikoen artean, Udalak Mankomunitateari Arrasate Pasealekuko alokairua luzatu diola; hortaz, Mankomunitatearen egoitza lehengo toki berean izango da. Horretaz gain, Musakolako piszinen eraberritze-obretarako aurrekontua gehitzea ere onartu zen, beste 4.400.000 PTAtan gutxi gorabehera. Azkenik, Eusko Jaurlaritzari "Gazte-azulandegiak 1992" kanpainan parte hartzeko interesa eta adostasuna adierazteko erabakia ere hartu zen.

Bestalde, gogoratu behar da gaur, hilak 5, arratsaldeko 7etan Udal-Plenoa burutuko dela *Senideak* elkarteak aurkeztutako mozio bat eztabaidatzeko.

ATERA KONTU!

**Beste kontu bat
ekartzen duenari
oparia emango**

zaio sari



**Garibai, 7
ARRASATE**



**BILATU ZEURE
ARBASOAK**

- Zuhaitz genealogikoak
- Famili jatorriak
- Abizenen ikerketa
- Harmarriak

**Elorza-Egiara
genealogiak**

(Historian lizentziatuak)

Foruen Plaza, 1-5. Esk.
ARRASATE Tfnoa: 79 58 80

Gestoraren Manifestazioa

Joan zen larunbatean, hilak 30, arratsaldeko 7.30etan Amnistiaren Aldeko Batzordeak antolatuta "Etxean nahi ditugu" lemapean manifestazioa burutu zen. Manifestazioa eskualde mailakoa zen eta *Senideak* ere bultzatzen zuen. Manifestazioan berrehun lagun baino gehiagok parte hartu zuten. Herri barruko kaleak pasatu ondoren Garibai bidegurutzean trafikoa etez zen. Minutu batzuk beranduago Ertzantza agertu zen eta, tentsio une baten ondoren, manifestariak Portaloirantz joan ziren. Portaloian eman zitzaion bukaera manifestaldiari abenduaren 6an, ostirala, Bilbon arratsaldeko 5.30etan presoen aldeko manifestazioa izango dela gogoratzuz. Bestalde, ostegunean, hilak 5, presoen eta senideen giza eskubideen aldeko mozioa aurkeztuko du plenoan *Senideak* taldea.



ONGI ETORRIA JAIOBERRIEI

Perez Rodriguez, Ana. Azaroaren 18an.
Zangroniz Agudo, Ainara eta Leire.
Azaroaren 26an.


Txandaka

TRAFIKOA HOBETZEKO AHOLKUAK

Negua hurbiltzen ari da eta badira aste batzuk euriteak ere hasi zirela. Ondorioz, trafikoa arazo batzuk gehiago, normalean herrian izan ohi ditugunez gain.

Denok dakigu —eta batzuek poltsikoetan igertzen dute— leku gutxi dugula hainbeste ibilgailu aparkatzeko. Azkenaldi honetan, berriz, espaloietan aparkatzeko moda etorri da. Arauak hausten dituztenetarikoren bati denuntzia jarriz gero, bitxiak izaten dira bere burua zuzitzeko edo deskarguan ematen dituen argudioak: "Espaloia behar hainbat handia da eta ez du galerazten oinezkoen pasoa", "Ertzainak ni bakarrik denuntziatu nau eta ez beste bost". Kontua da bera zela kotxea atarizuloraino sartua zuena, han bizi direnei sartzea eta irteera eragotziz.

Euria egiten duenean, trafikoa eta arazoak gehitu egiten dira. Ibilgailua gutxiago erabili beharko genuke guztiok. Automobil bakoitzean bidaiari gehiago sartu eta garajea dutenek, behintzat, aparka dezatela bertan, behar ez dutenean. Bazkalordua eta txikiteo-ordua izaten dira mo-



Anton Egia (*)

menturik txarrenak. Solidaritate gehixeagoz jokatuko beharko genuke denok eta oinez gehiago ibili.

Zirkulazioa geldo da; badira bestalde biragune eta zentzu-aldaketa arriskutsuak ere, eta bide-zati batzuetan hartzen den larregizko abiadura ere ezin ahaz-

tu.

Gidaritzari dagokionez, eta eguraldiaren edozein gorabeheraren aurrean, nahiz eta txikia izan, argiak pizten ohi behar dugu, hobeto ikusiko bait gaituzte. Hau horrela dela frogatzeko, begira diezaigun motozikleta bati uda-udan; argia beti piztuta eramaten du eta urrutitik ikusten dugu.

Herritik irten eta Gatzagako bidetik joaten gara Gasteizerantz. Larregizko abiaduran ibiltzen gara denok eta bihurtu gabe lekurik ez. Bihurgune guztiak, okerrena ere, ongi har daizteke ezkerretara sartu gabe, behar bezalako abiaduraz ibiliz gero. Zenbat geratu ote dira alboko atzeranzko ispilurik gabe errepide honetan?

Jarraituko dugu. Agur.


(*) ARRASATEKO

ERTZAINDEGIKO BURUA
(Erredakzioan itzulia)

LILURA
zeure moda
diseinatu
eta sortzen laguntzen dizu
Zerkaosteta, 5 behea.
ARRASATE Tfnoa: 79 89 72

ENARA
OSAGIRRIAK 
Maalako Errabala, 21
Tfnoa: 79 62 32
20500 Arrasate


Hilbera
kafetegia
Uribarri Etorbidea
ARRASATE



Gipuzkoako akordeoi zaleak aukera ederra izango dute gustoko duten musika entzuteko

Gipuzkoako akordeoilarien saioak

200 akordeoi-jole inguru bilduko dira

Ostiralean, abenduaren 6an hasi eta igandera arte, Arrasaten Gipuzkoako XIIgarren Akordeoi Jaialdi - Lehiaketa burutuko da. Guztira, berrehun akordeoilari inguruk hartuko dute parte ekitaldi honetan, hainbat arlo eta mailatan. Jaialdian zein Lehiaketan parte hartzen dutenek, ostiral eta larunbatean, goiz eta arratsaldean, Batxilergo Institutuko geletan izango dituzte lehen saioak. Amaierako jaialdia, berriz, Alai zinemaren izango da, goizeko 11.30etatik aurrera; bertan, kategoria bakoitzeko hiru akordeoilari onenen emanaldia entzuteko aukera izango da eta gero sari-banaketa egingo.

Gipuzkoako XIIgarren Jaialdi - Lehiaketa honetan kategoria ugari dira, hala nola, Hastapenak, Folklorea, Bikotea...; gainera, kategoria bakoitzeko adinaren arabera beste sailkapen batzuk egin dira. Guzti hori horrela,

badira gutxienez hamazazpi kategoria desberdin, beraz luzeegia guztien berri ematea. Hori bai, kategoria bakoitzeko partaideek lehenik obra baten derrigorrezko interpretapena egin beharko dute, eta gero bakoitzak aukeratutako batena.

Sariei dagokienez, aipatu behar, Lehiaketan, ez jaialdian, parte hartzen dutenak hamabost bakarrik direla; Infantil mailan lau, Junior mailan zazpi eta Senior mailan beste lau. Infantil mailako kategorian irabazle ateratzen denak, 25.000 PTAko saria eramango du; Juniorren kategoriako irabazleak, 100.000 PTAko saria; azkenik, Seniorren kategorian irabazten duenak 200.000 PTA eramango ditu.

Saria nori eman erabakitzeke, epaimahaiaren honako hauek izango dira: Bogdan Precz poloniarra, Jacques Mornet frantziarra eta Francisco Escudero espainiarra.

Usteak uste

Gure herri honen garbitasun maila oso pobrea dela esango balu norbaitek, ez luke ezer berririk esango, eritzi hau baieztatu dezaketen hainbat eta hainbat adibide aurki ditzakegukako egunero.

Kultur arazo bat da zalantzarik gabe, eta urte asko beharko dira gaur egun ematen ari garen irudi hau guztiz aldatzeko. Konponketa zaila du, zoritxarrez.

Kalean zehar ikusten dugun zikinkeria alde batetara utziz, sar gaitetzen tabernetan aurkitzen dugunarekin: txotxak, paperak, ogi-puxketak, limoi eta laranja zatiak lurrean.

Egia esan, ez dut uste inor harritzen garenik. Baina, hau horrela izanik, zer pentsatuko ote dute gu bisitatzen herbestetik etortzen direnek? Ez al dugu guk galdera bera botatzen gu baino atzeratuagok diren herriak bisitatzerakoan han dagoena ikusi ondoren?

Arazo hau konpontzeko asmoz har daitekeen edozein iniziatiba bakar edo indibidualak frutu gutxi lortuko luke nire ustez; bezero ez omen gaude prest lurrera botatzeko betidanik izan dugun ohitura txar hori uzteko, nahiz eta zakarrontzi bat aldamenean eduki. Eragin zabala lortzeko beharrezkoa ikusten dut tabernari multzo handi bat animatzea...

Eta, zergatik ez? soluzio egoki eta funtzional bat asma dezagun, ez litzateke gaizki egongo ideiei lehiaketa bat proposatuko bage-nu... Bai ala ez?

J. R. ELORTZA

LA UNION

Garaje elektro-mekanikoa
Agentzia ofiziala

Tailerra: Zaldispe, 2

Erakusketa: Santxo Abarka, 6

ARRASATE Tfnoa: 79 97 12




URRATS

AHOLKULARITZA

GARIBAI, 3

Tfnoa: 79 87 74

ARRASATE




**Kanaria
Irletara bi
lagunentzako
bidaia.**




Renault Clio 1.1 CL (F. F.)

Sari paregabeak!

Beheko sei denda horietakoren batean erosketak egitean, bi sari bikain hauek zeureganatzeko aukera izango duzu, urtarrilaren 14ean ARRASATE PRESSen egingo den zozketan parte hartuz.




Iturriotz kalea, 8 ARRASATE
Tfnoa: 77 04 01




Erikite S.L.
SOINUA · BIDEOA · TB · KOMUNIKAZIOA

Otalora, 25 ARRASATE
Tfnoa: 77 13 20



Maalako Errabala, 5 ARRASATE
Tfnoa: 79 19 25

Fototrunkoa



Edurne Erauskin zen joan den asteko pertsonaia.

Aste honetako irabazlea:
IZASKUN ZUBIZARRETA

Argazkikoa nor den esanez, bidali beheko txartela ARRASATE PRESSera (Azoka kalea, 1) eta aste honetan OKENDO KIROLAK etxeak emango duen opariaren zozketan sartuko zara.

ERANTZUNA

Nor da aste honetako pertsonaia?

.....


Izena:

Abizena:

Helbidea:

Herria:

Tfnoa:




KATAIDE

Kataide Poligonoa. ARRASATE
Tfnoa: 79 60 10



Maala Errabala, 13 ARRASATE
Tfnoa: 79 92 76



J. Markiegi

JANTZIDENDA


Olarte, 2 ARRASATE
Tfnoa: 79 15 32

❑ Fagor Expo-92an

Expo 92ren antolatzaileek Fagor enpresarekin 350 milioiko kontratua egin dute 1.289 etxebizitzarentzako ekipamendu integrala egin dezan. Dirudenez, Fagorrek, Merirena de Algorrejon egin beharko du etxeen ekipamendua, Expo-92a ikustera joaten direnak eroso egon daitezten.

❑ Euskararen Hitzarmena

Datorren abenduaren 18an, Monterronen eguerdiko 12etan Euskararen Hitzarmena sinatuko dute beste 20ren bat taldek. Horrenbestez, 80 elkarte edo enpresa izango dira Arrasaten euskara bultzatzeko Hitzarmenean parte hartuko dutenak. Gogora daiteke, lehen sinadura 1990eko martxoaren 28an egin zela, 38 sinatzaileekin. Bigarren saio batean beste 21ek sinatu zuten Hitzarmena, ondorioz, gaur 59 dira Euskararen Hitzarmenaren sinatzaileak. Asteazkenean, besteak beste, aipatutako 59ri hauek gehituko zaizkie: ALMEN ikastola, JMA, Kataide Jatetxea, Arrasate hotela, Deba Garaiko Mendi Nekazaritza Elkartea, Zabaleta liburudenda, Deba Garaia eta Etxeder inmobiliariak, Gipuzkoako aholkularitza, Urrats aholkularitza, Belaxe itzulpen-zerbitzua, Gabinet Psikopedagogikoa, EYA, Elkorro, Trikitixa Eskola eta Arrasate Komunikabideak elkarteak. Horietaz gain, oraindik erantzuna emateko daude Fagor, Aita Menni, Hirei, Orkatz Skaut taldea eta Maritxu Kajoi Jai Batzordea.



Egunkariak badu bere irakurle goa.

Egunkariaren lehen urteurrena

Arrasaten 1.500 ale banatuko dira dohainik

Bihar ostirala, hilak 6, *Egunkaria* sortu zeneko lehen urteurrena izango da. *Egunkariaren* lehen urtebetetze-egun hau bi alderdiri begira antolatu nahi izan da: alde batetik, zorionak emateko urtebeteko ihardueran *Egunkariaren* alde lan egin duten guztiei, eta bestetik ekonomia sendotzeko.

Hori dela eta, ostiralean *Egunkariak* dohaineko ale berezia banatuko du Euskal Herri osoan, 64 orrialdez osatua: 48 orrialde *Egunkariari* buruzko informazio orokorraz osatuta eta gai-nontzeko 16ak, tokian tokiko, berriei

eskainita. Guztira 150.000 ale banatuko dira, horietatik 1.500 Arrasaten.

Ale berezia banatzeaz gain, lehen urteurren honetan Portaloi inguruan, eguerdi aldera, *Egunkariaren* aldeko kuestazioa egingo da. Hori gutxi balitz, *Egunkariaren* material ugari saltzeko mahai bat jarriko da Portaloiaren bertan. *Egunkariaren* metxero, txapak, etab. erosi nahi dituenak badaki nora inguratu ostiral honetan. Ekintzak aurrera, hila-ren 15ean jaialdi erraldoi bat egingo da Anoetan. Oraindik ez da zehaztu, baina autobusa jarriko da seguruen.

ESTETIKA-ZENTRUA

Z arra o a
lurrundegia, opariak, jostailuak

Kanpantorpea, 4 Tfnoa: 79 12 19

VE ECUADOR

Kontzezifio, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06



Zurgin Kantoi, 2


Tfnoa: 79 20 04

ARRASATE



**SAMEGO
GARBIKETAK**

Uriburu, 24
ARRASATE
Tfnoa: 79 70 39



Pasa den ostiralean, hilak 29, **On Jose Maria Arizmendiarrietaren oroimenez** Juan Miguel Antofianzasek "Gaurko enpresak eta etorkizuna" izenburupean hitzaldia eman zuen. Jende asko gerturatu zen Eskola Politeknikora eta hitzaldia bukatu ondoren VI. Lehiaketako sariak banatu ziren.



Jose Mari Mendizabal zen joan den asteko *Fototrukoan* agerterazi genuen pertsonaia. Erredakziora iritsi ziren erantzun guztiek —gero eta gehiago— asmatu egin zuten. Halabeharrez, zozketak saritu bakar bat eman zuen, **Amaia Pagaldai**. Hor duzue argazkian, *Kataidera* joan ahal izateko balio dion txartela jasotzen.


txutxumutxuak

Izen
PROPIOAK

● **Tomas Zubizarreta**, 29 urteko arkitektoa, urtarrietik udaleko arkitekto-lanak egiten aritu da. Lanpostu honetarako oposaketak burutu berri dira eta beronek gainditu dituzten lanpostu fijoak eskuratu du.

● Jose Maria Arizmendiarrietaren VI. Lehiaketako sariak jaso dituztenak honako hauek dira: A mailan, 5. saria, **Aranztazu Eguren** eta **Lorena Egidazu**. 4.saria, **Raul Ramirez**. 3.saria, **Natalia Cups**. 2.saria, **Nuria Sanchez, Laura Sanchez eta Aina Lete**. 1go saria, **Aranztza Fernandez eta Oihana Jausoro**. B mailan, berriz, 3.saria, **Miriam Altube eta Goizalde Hernando**. 2. saria, **Iñigo Garzia eta Jon Agirrezabala**, eta azkenik 1go saria, **Andima Laskurain eta Iker Iturricastillo**.

SEGURTASUN-INJINERUTZA



Zure denda, lantegia, etxea, etab. **BABESTEN** ditugu **LAPURKETA** eta **SUTEEN** aurka
Legutianoko atea, 35 Tfnoak: 26 34 77 eta 26 33 44 GASTEIZ



**GIZON ETA
EMAKUMEAREN
MODA**

Otalora Z/g
Tfnoa: 79 20 50
ARRASATE




Epelde

Argazkiko bikotea **Josu Telleria** eta **M^a Asun Sanz** osatzen dute. Ekainaren 22an egin zuten ezkontza, Arantzazuko Santutegian. Zorionak bioi!



Sebero Altubeko iturriaren bueltan dauden burdinak berriro ere jasota eta okertuta daude. Udalak behin baino gehiagotan konpondu izan ditu, badiurdi baten batzuek ondo pasatzen dutela beste batzuek konpontzen dutena hondatzen.



Joan zen astelehenean, hilaren 2an, **Txindu Ludobus Kooperatiboa** Arrasatera heldu zen, Iturripera hain zuzen ere. 3etatik 4.30ak arte egon zen eta bertara San Viatorreko umeak joan ziren. Jokoak, dantzak, kantuak eta beste hainbat ekintza egin zituzten.



Gesalibarren, urtero bezala, auzoko jubilatuei omenaldia eskaini zitzaien. Auzoko emakumerik edadetuena, 92 urteko **Florencia Arranz** da; gizonezkoen artean, ohore hori 85 urteko **Rafael Unamunori** dagokio. Florencia Arranz, gaixorik dagoenez, ez zen bertan izan, bai oster, Rafael Unamuno, argazkian txapel handiarekin dagoena, hain zuzen ere.


**Gabonetan bitan irten bada, zergatik ez hirugarrenean?
Ez geratu jokatu barik, aurten ere
zertxobait tokatuko zaigu eta.**

**Ez itxaron azkenera arte,
eta erosi "GORDOA" hementxe.**

ZORIONAK!

**Trinidad Ruiz de Alegria,
1. Loteri Administrazioa**


Erdiko kale, 10 ARRASATE Tfnoa: 79 12 27





Golen saltsa

Gol asko sartu ziren joan den asteko ihardunaldian: 18 batzuek, 15 bestek; 11 sartu zituen talde bat ere bazegoen, baita 7-8 gol lortutako beste batzuk ere. Hainbeste gol ez dira onak jasotzen dituenarentzat, futbitoari, ordea, bizitasuna ematen diote.



**ARRASATE
KIROLAK**

Astore, Nike, Reebok, Auia, Adidas, Converse, Mito, Ellesse, Boreal, Libero, Quicksilver, Le coq sportif, Millet, Saucony, L. A. Gear, etab.

Kontzeziño kalea, 8 ARRASATE
Tfnoa: 79 46 12 Faxa: 79 92 42



**DEBA
GARAIA**

INMUEBLE ETA FINANTZ AGENTZIA

ITURRIOTZ, 23 etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 13 02 Faxa: 77 14 27



Zaldibarko Futbito-txapelketa

A taldea

	Partiduak				Golak		Punt. guzt.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Fosforos	8	7	1	0	49	15	15
Adobe	8	7	0	1	35	23	14
Zulu's	8	6	0	2	34	27	12
Akaitegi Express	7	5	1	1	68	20	11
Los Heredia	7	5	1	1	35	15	11
Los Manchas	8	4	1	3	56	35	9
Kriskibalda	8	4	1	3	31	23	9
A. Kristaldegia	8	4	1	3	26	18	9
Jubilatus	7	3	3	1	35	29	9
Neantheral's	7	4	0	3	25	18	8
G. P. Noski	7	3	1	3	28	16	7
S. Ind. Ugarte	8	1	3	4	22	33	5
Uglys	7	2	0	5	18	26	4
Koxkas	7	0	2	5	30	56	2
B. D. L.	8	1	0	7	11	57	2
Expert	7	0	1	6	13	60	1
T. San Josepe	8	0	0	8	15	60	0
Tronkoteak	—	—	—	—	—	—	—
Total	128	56	16	56	531	531	128

B taldea

	Partiduak				Golak		Punt. guzt.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Los Motz	8	7	0	1	53	16	14
La Banda	7	6	1	0	37	13	13
Fasprint	8	5	3	0	34	16	13
Jo ta akabau	8	6	0	2	45	23	12
Potroak Lorategi	8	5	1	2	30	18	12
Navarros	7	5	0	2	29	12	10
Siblius Rover	8	4	2	2	24	20	10
Ganbelas	8	4	1	3	35	24	9
Danak Lagun	8	4	1	3	29	22	9
Anbotoste K. T.	7	3	1	3	22	28	7
Gau Azkenak	7	3	0	4	22	19	6
Bukanak	7	2	1	4	21	37	5
Txintxes Osorik	8	1	1	6	19	35	3
Inter de Alima.	7	1	1	5	12	32	3
Maria del Monte	7	1	0	6	10	42	2
M. K. A.	7	0	1	6	12	47	1
Oleee!	8	0	0	8	11	41	0
Totxus	—	—	—	—	—	—	—
Total	128	57	14	57	445	445	128


C taldea

	Partiduak				Golak		Punt. guzt.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Gnu. Seg. Bilbao	8	7	1	0	29	4	15
Adelaida	8	7	0	1	38	9	14
New Laso Arregi	8	6	1	1	29	13	13
Argi Ibilu	8	6	0	2	49	21	12
Diego Antonio	8	5	2	1	32	20	12
AEK	8	5	2	1	30	22	12
Bar Kajoi	8	5	0	3	45	18	10
ATB	8	4	2	2	33	22	10
Txokeros	8	4	1	3	29	23	9
Taber. Monterey	8	2	3	3	23	29	7
Aurrera bolie!	8	2	2	4	19	24	6
Aizpun Bila	8	3	0	5	26	53	6
Arrasate Press	8	2	1	5	15	23	5
Alaves	8	2	1	5	16	33	5
Shaktale	8	1	2	5	22	39	4
Bayer de Lenitz	8	1	1	6	14	47	3
Sokoakoak	8	0	1	7	20	44	1
Whiskeria Linde	8	0	0	8	19	44	0
Total	144	62	20	62	488	488	144

D taldea

	Partiduak				Golak		Punt. guzt.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Arrasate Kirolak.	8	7	1	0	35	12	15
Cameron's Trikiti	8	6	2	0	43	16	14
Artzankos Udal.	8	7	0	1	39	15	14
V. C. Daglas	8	5	1	2	41	11	11
Bar Artano	8	5	1	2	35	24	11
Notxingan Flo.	8	5	1	2	30	20	11
Arrasate Comer.	8	5	1	2	20	18	11
Hirei	8	5	0	3	26	20	10
Pepelus	8	4	0	4	24	23	8
Bizkorrak	8	3	1	4	25	23	7
Ghana	8	3	0	5	28	24	6
Kakajauri	8	3	0	5	17	23	6
Balaikae	8	2	1	5	17	36	5
Resakas	8	2	0	6	21	34	4
Nagixak	8	1	2	5	15	31	4
Ezkinako Hontza	8	2	0	6	17	42	4
Atxanta ke te...	8	1	0	7	15	52	2
Sukumurus	8	0	1	7	11	35	1
Total	144	66	12	66	459	459	144

JMA JMA



Baloia atezainaren inguruan dabilenean, defentsa zein aurrelariak adi egon beharra daukate. Izan ere, horrelakoetan erraza izaten da errebote baten ondorioz baloia norberaren hanketara etortzea, orduan zer egin azkar erabaki behar izaten da. Bestela, kontuz!

EMAITZAK

A taldea

Los Heredia 3	G. P. Noski 2
Koxkas 4	Akeltegi Express 18
Jubilatus 8	Talleres S. Josepe 2
Uglys 3	B. D. L. 6
Expert 2	Fosforos 8
Adobe 2	Arrasate Kristaldegia 1
Kriskibalda 1	Zulu's 3
Los Manchás 3	Sum. Ind. Ugarte 3

C taldea

Diego Antonio 2	Arrasate Press 0
Aizpun Bila 4	Monterey taberna 3
Sokoakoak 0	Gnu Seg. Bilbao 6
New Laso Arregi 4	Aurrera Boliñi 1
Shaktale 3	Argi Ibilii Mapire 11
Whiskeria Linde 2	AEK 3
Txokeros 6	Alaves! 1
ATB 10	Bayer de Lenitz 1
Adelaida 1	Bar Kajoi 5

B taldea

Los Motz 2	La Banda 4
Potroak Lorategi 5	Danok Lagun 1
Bukanak 6	Maria del Monte 5
Anbotoste K. T. 6	Inter de Alimañas 3
Gau azkenak 1	Jo ta akabau 4
Txintxes Osorik 2	Fasprint 7
MKA 0	Ganbelas 15
Oleel 1	Sibilus Rover 5

D taldea


Nagixak 2	Balaik 2
Pepelus 1	Arrasate Kirolak 4
Sukumurus Anboto 2	Ghana 7
Artzankos Udalaiz, 7	Atxanta ke te... 0
Bizkorrak 1	Hirei 3
Arrasate Comercial 3	Kakajauri 1
Bar Artano 7	Ezkinako Hontzak 1
V. C. Daglas 4	Notxingan Florest 2
Resakas 2	Cameruns Trikiti 7

Iturriotz, 7 Tfnoa: 79 04 67
ARRASATE

AMETSA bideoa

- Erreportaiak, ezkontzak
- Kirol-grabaketak
- Bideo industrialak

Santalaitz, 4
San Lorenzo Poligonoa
BERGARA
Tfnoa: 76 54 35



ERROTA-GAIN Aluminioak

Aluminiozko leihoak (haustura termikoa) eta PVC

Altos Hornos-Azkarruntz auzoa BERGARA Tfnoa: 76 32 40 Faxa: 76 32 41



Txutak

Atzekoen aukera

Ez du aldaketa nabarmenik ekarri azken ihardunaldiak, baina bai, ordea, xehetasun interesgarri pare bat. A multzoari begiratuz gero, aipagarriena *B. D. L.* taldearen lehen garaipena izango litzateke, *Uglys* taldearen aurkako partiduan lortuta, alegia. B taldean berriz, *Los Motz* taldeak, liderrak, lehen partidua galdu zuen *La Bandaren* aurka, baina ez du lidergorik galdu. C multzoko emaitzarik aipagarriena, iazko finalisten arteko partidua: *Adelaidak Bar Kajoiri* 1 eta 0 irabazi. Datorren astean, nahiz eta ostirala

jai izan, Zaldibarko Txapelketako ihardunaldi berri bat jokatuko da. Ostiraleko jai hori aprobetxatuz, ihardunaldia hiru egunetan jolastuko da eta ez, ohi den bezala, bitan. Ez da lidergorik jokoan jarriko, baina badira partidua interesgarriak, batez ere sailkapenean atzekaldean dabilzanean artean. *Koxka's* eta *B.D.L.* taldeen arteko partiduan, *B.D.L.* koek aurtengo bigarren garaipena eskuratzeko aukera izango dute. *Fosforos* eta *Akeitegi Expres* taldeen arteko partidua ondoan, aldaketa txikiren bat eman daiteke sailkapeneko lehen postuetan. *Txintxes Osorik*-en aurka lor dezake bere lehen garaipena *MKAk* eta azkenik, gauza bera egin dezake *Atxanta ke te mereces...* taldeak, *Nagixak*-en aurkako partiduan.

Beñardo Kortabarria

DATORREN ASTEBURUAN

A taldea

Los Heredia	Arrasate Kristaldegi
Koxkas	B. D. L.
Jubilatus	Zulu's
G. P. Noski	Kriskibalda
Uglys	Los Manchas
Akategi Expres	Fosforos
Expert	Adobe
Neantherta's	Sum. Ind. Ugarte

B taldea

Los Motz	Inter de Alimañas
Petroak Lorategi	Ganbelas
Bukanak	Jo ta akabau
Arbotoste K. T.	Navarros
Gau azkenak	Oleee!
María del Monte	Fasprint
Txintxes Osorik	MKA
La Banda	Sibilus Rover

C taldea

Diego Antonio	Aurrera bolie!
Aizpun Bila	Alaves
Sokoakok	Argi Ibil
New Laso Arregi	Bayer de Lenitz
Monterey taberna	ATB
Shaktale	Adelaida
Gnu Seg. Bilbao	AEK
Whiskeria Linde	Txokeros
Arrasate Press	Bar Kajoi

D taldea

Nagixak	Atxanta ke te...
Pepelus	Ezkinako hontzak
Sukumurus Anboto	Hirei
Artzankos Udalaiz	Notxingan Florest
Arrasate Kirolak	V. C. Daglas
Bizkorral	Resakas
Ghana	Kakajauri
Arrasate Comercial	Bar Artiano
Balaika	Cameruns Trikiti



Master

Eboluzioak sari on bat merezi du.



Banatzailea: J. A. Hernandez. Tfnoak: 79 22 40 / 79 85 32 ARRASATE

Olatz Arkauz, Josu Arkauz Arrasateko euskal preso politikoaren arreba da. Josuk 8 urte zeramatzan Iparraldean errefuxiatuta eta aurtengo martxoan kotxera zihoala poliziek inguratu eta atxilotu egin zuten. Gaur egun Fresneseko espetxean aurkitzen da, Frantzian.

— Nola enteratu zineten atxilotetarenaz?

— Irratitik. Amakgaueko 12etan irratitik entzun zuen, nahiko gogorra izan zen ez bait zekien hasieran nora jo edo nori deitu. Konfirmatze-ko hara eta hona deika hasi ginen, baina inon ez ziguten informaziorik ematen. Hurrengo egunean Frantziara joan ginen eta leku guztietan han ez zegoela entzuten genuen; gainera, guretzat trabarik handiena hizkuntzarena zen; eskerrak preso eta errefuxiatuen laguntzarako batzordeko neska batek lagundu zigula, eta hark frantsesa bazekien.

— Zein egoeratan aurkitzen da gaur egun?

— Sei hilabete isolamenduan egon da, bakarrik aita edo amaren bisitarekin. Anai-arreboi ez ziguten ikusten uzten. Egoera hau Frantziako preso guztiak jasaten dute atxilotu ondoren, baina Zuzendaritzak erabakitzen du noiz arte mantendu egoera honetan. Guk, adibidez, zorte dexente izan dugu, zeren gehienek denbora gehiago pasatzen dute egoera honetan. Orain 20 egun zigorzelda batean egon da lagun bati eskutitz batean idatzi ziona idaztearren. Orain beste preso komun batekin dago. Frantziako gartzelen erregimena gogorragoa da, baina ez da Espainiako gartzeletan dagoena bezalakoa, Espainian erregimena gogorra

Olatz Arkauz

Anaia Parisen preso



izateaz gain, funtzionaria presoarekin sartzen bait da. Han funtzionariak ez dira presoekin sartzen.

— Zenbatero joaten zarete ikustera?

— Astean hiru egunetan ordu erdiko bisita egiteko aukera dugu, baina 1.800 kilometro egin behar direnez, hiru astetik behin joaten gara. Autobusez joaten gara, Amnistiaren aldeko Batzordeak antolatua Frantzian presoak dituztenentzat; horregatik, merkeago irtetzen zaigu bidaia. Bakarrik 30 minutu egoten gara han, ez bait dago akumulatzeko aukerarik. Espainiako gartzeletan, be-

rriz, astean behin joaten dira ikustera, baina astean duten bisita bien denbora akumulatzen dute.

— Nolakoa izaten da bisita bat?

— Sartzerakoan metalen detektoretik pasatzen gaituzte. Berak katxeo gogorra pasatzen du bisitara irten aurretik eta ondoren. Kabina txiki batean izaten da, mostrodorea tartean dugularik; beraz, hiru pertsona baino gehiago ezin gara egon, baina behintzat, anaia besarka dezakegu, Espainiako espetxeetan ezin dena egin

— Presoak egiten ari diren gose-greban, Frantzian

daudenek ere parte hartuko dute?

— Bai, abenduaren 7an hasiko dira eta 14ra arte egongo.

— Zergatik gose-greba?

— Lehenengo eta behin, esan behar da ez zaigula gustatzen ez guri eta ez presoek gose-greba egitea, honek suposatzen dituen osasun arazoengatik, zeren preso gehienek urtean bataz beste gose greba bat egiten dute. Gure anaiak, esate baterako, urte berean egiten duen bigarrena izango da. Baina, presoek zerbait lortzea nahi badute daukaten baliabide bakarra da. Lortu nahi dutena, beraien eta senideen giza eskubideak errespetatzea eta hona Euskadira etortzea da.

— Zuek, senideak, kanpaina honetan ere parte hartu duzu; nola?

— Mozio bat aurkezten ari gara Udal guztietan eta eskatzen duguna zera da: alde batetik, preso guztiak Euskadira ekartzea Konstituzioan lege bat dagoelako esaten duena preso guztiak beren etxetik gertuen dagoen presondegian kondena betetze-ko eskubidea dutela. Bestetik, presoek giza eskubideak errespetatzea. Azkenik, Udala presoek egoera hobetzearen alde azaltzea.

— Mozio hori onartuko balitz, zer suposatuko luke zuentzat?

— Udal askotan mozioa onartuz gero sekulako pisua suposatzen du, gero Diputazioetara eta Gobernuetara joateko asmoa dugulako. Orduan, zenbat eta udal gehiagok sinatu, hobe. Honekin sakabanaketaren politika bukatzea lortuko genuke eta hau lortuz gero, senideek gure tartekoak ikusteko bidaietan egin behar ditugun kilometro guztiak suposatzen duten arriskua bukatuko litzateke.

— **“Lehenengo sei hilabeteetan aita eta ama bakarrik joan zitezkeen bisitara”**

San Nikolas ohitura zahar berritua

Seguruen arrasatear guztiak, gehienak behintzat, noizbait San Nikolas egunez aterik ate kantu eta eskean ibiliko ziren. Batek daki, ohitura zahar hau noiz eta zergatik sortu zen Arrasaten. Hori alde batera, garrantzitsuena zera da: ohiturari, aldaketa askorekin, jarraipena eman zaiola eta oraindik bizirik dirauela.

Nondik ote dator?

Jakina denez, San Nikolas, Errusiako patroia da. Arrasaten ez, baina Euskal Herriko beste toki batzuetan, Errusiako patroari eskainitako hainbat eliza dago: Bilbo, Algorta, Elantxobe, Orio, Lastur, Zaldu etab. Zergatik orduan, askalo noiztik, abenduaren 6an Arrasateko ume piloak goizean goizetik kalera atera ohi da? Bada, herriko liburategian dauden iturriek ez dute batere argitasunik ematen. Beraz, ohituraren zergatiak alde batera utzi behar.

Euskal Herriko beste herri batzuetan ere, Arrasaten egiten den modura igarotzen da San Nikolas eguna. Baitan, Antzuolan bakarrik egiten da zerbait antzerakoa, baina azken urteetan indar asko galdu du eta oso gutxi dira eskean eta kantuan ateratzen diren umeak.

Orain larogei urte

Arrasateko kasuan, ez dago esaterik ohiturak indarra galdu ala irabazi egin duen. Seguruen, bakoitzak pentsatuko du bere garaian


era jatorragoan igarotzen zuela eguna, politagoa zela eta abar. Argi dagoen gauza bakarra, ohiturak aldaketak izan dituela.

1911. urtean "Euskalerrriaren alde" aldizkarian Juan

Carlos Guerra arrasatearrak zioenez, umeek ilusio handiz itxaroten omen zioten San Nikolas eguneko goizari. Orduan, artean eguna zeharo zabaldu barik zegoenean, mutikoak eskuetan lastozko sorta bana zutela, kanposantu aurrera joaten ziren. Hilerri aurrean, hildakoen alde "Pater Noster" bat errezatzen zuten, gero oihu eta algara artean herrirantz bueltatzeko. Herrira iristen zirenean, mutikoek etxe aberatsen aurrean kantatzen omen zuten, betiko koplak ezaguna, jakina:

*"San Nikolas coronado
arzbispo Mari Andrés,
a la luna noche y día
etxeko andre noblia
egizu, egizu pilia
San Nikolas triskili tras
dame una castaña y no quiero
más..."*

Juan Carlos Guerrak zioenaren arabera, herriko jauntxoei bisita egin ondoren mutikoekin neskakilak elkartzen omen ziren. Une horretan, aurreko koplari ondorengo hau gaineratzen zitzaion:



Mutiko eta neskak, nahiz eta ez gustoko izan, elkarrekin joan beharko dira.

*"San Nikolas Santua
Udalaitzen sortua
¡Anboto! ¡Anboto mada-
rikatua!
San Nikolas, triskili trás,
dame una castaña y no quiero
más.*

*Aquí estamos cuatro,
cantaremos dos,
para San Nikolas
por amor de Dios.*


*Belengo portaleko
ate zabaletan
hotzak ikaraz dago
Jesus lastuetan.*

Horraio, 1911. urtean Juan Carlos Guerrak aipatzen zituen bertsoak. Badirudi denborak aurrera, Anboto aipatzen duen koplak galdu egin zela, behintzat gaur egun umeek ez dute ezagutzen ezta kantatu ere. Bat galdu zen moduan, koplak zaharrei beste bat erantsi zitzaion, hauxe diona:

*"Angelitos somos
suspi, suspiramos.
Lukainka, txorizo
neskei dana
mutilei bapez,
mutilei dana
neskei bapez..."*

Beste garai batzuk

Oraingo moduan, kantatu eta gero hasten omen zen umeen borroka jaurtitzen zuten guztia eskuratu ahal izateko. Juan Carlos Guerrak bere artikulua idatzi zuen



Makina bat poltsa zabalduko dituzte San Nikolas egunez

garaitik hona, koplak zahar-berrien asuntuaz gain, ohitura funtsean ez da aldatu, baina badira xehetasun batzuk. Esate baterako, neskatila eta mutikoak ez dira dagoeneko bananduta ateratzen, batera baizik; herriko jauntxoek, baldin badaude

ere, ez zaie bisita berezirik egiten; orain hiru urte, Udalak bolo-boloa antolatu zuen lehen aldiz. Behar bada, aldatetarik nabariena kantatzeagatik eskaintzen den sarian gertatu da, batez ere hartzeko eran, gaurko umeek edozer gauza baino dirua

nahiago izaten bait dute.

Garai batean, etxeoandreek botatzen zituzten intxaur, gaztain, sagar, goxoki edota mahaspasak ez dute estimazio handirik aurkitzen gaur eguneko umeen poltsetan, oso txikiak ez badira behintzat. Era horretan, San Nikolas eguna datorrela eta etxeoandreek ilusio handiz erositako jaki eta goxoak ez dira umeen gustoko izaten eta askotan jaso ere ez dituzte egiten. Alderdi horretatik, erromantizismo-kutsu gehiago dute intxaur eskukada lortu ahal izateko egiten ziren borrokek, bost duro lortzeko egiten direnek baino. Dena dela, ohitura hor dago eta meritu bera dute baterako zein besterako borrokek, kolpeak behintzat antzerakoak. Urte askotarako izan daitezela!

Orain hogeitun urte...

Gu eguerdian elkartzen ginen, bazkalondan eta eskolara joan aurretik. Mutikoak alde batetik eta neskatilak bestetik biltzen ginen, nahiz eta gero elkarrekin joan talde biak, batez ere 'Mutilei dana, neskei bapez' esateko orduan saltsa gehiago izaten zelako. Gero, arratsaldean ere, eskolatik irtenda berriro hasten ginen kantuan. Baziren koadrila batzuk handik bi egunera artean San Nikolaseko kontuekin jarraitzen zutenak; baina gu ez, gu oso formalak ginen eta bakarrik tokatzen zen egunean ibiltzen ginen"

**AUTO
ESKOLA**

ARRASATE

7etatik 8etara klase teorikoak

Olarte kalea, 30 ARRASATE Tfnoa: 79 89 89



Futbitokoak berriz irabazi

Futbitoko Cnes. Brues taldeak garaipen berri bat lortu zuen Iturripen, oraingoan Izarra Gorri taldearen aurka; 6 eta 1 azken emaitza. Lehen zatian gogor jokatu zuten talde biek, atsedenaldirako markagailuan 2 eta 1-eko emaitza zegoelarik, Arrasateko taldearen alde. Bigarrenean, arrasatearrak indar handiz atera ziren eta arabarren defentsaren ahultasuna agerian jarri zen, beste lau gol lortuz. Azkenean, markagailuan 6 eta 1 Arrasateko taldearen mesederako.

Aspaldiko partez garaipena

Centraljet-eko emakumeek, aspaldian, ez zekiten zer zen partidua irabaztea. Joan den astean, berriz, oso partidu ona eginez garaipena lortu zuten, Logroñoeko Laneder taldearen aurka, 79-71. Partidua oso gogorra izan zen; hasieran errioxarren alde joan ziren gauzak, baina Arrasatekoak markagailuari buelta emateko gauza izan ziren. Atsedenaldirako, Zur-



banoren neskak markagailuan aurretik jarri ziren eta hortik aurrera ez zuten

abantaila areagotu besterik egin. Merezitako garaipena, inolako duda barik.

Hurrengo partidua

Arbitro txarra tokatu zitzairen joan den astean Mondrako jokalariei, ez bait da normala talde bati zazpi txartel atera eta besteari bat ere ez. Hori gutxi balitz, aipagarria da arrasatearren aldeko penalti argi bat ere egin zutela getxotarrrek, baina arbitroak ez zuen ikusi nahi izan.



Jokoari dagokionez, partidua erabat dominatu zuten arrasatearrek, baina egindako aukerei ezer onik atera barik. Getxotarrak, berriz, defentsa-lana egin zuten gehienbat. Hori bai, gol polita lortu zuten, falta baten jaurtiketaren ondorioz sortutako jokaldian, ikusgarria benetan. Joko ona, baina emaitza eta arbitro txarra; alde horretatik ahazteko partidua.

Datorren igandean partidu berri bat jokatu da Atxabalpen, eta oraingo arerioa Gernika taldea izango da. Gernikarrek talde on samarra dute, beterrano ugariz osatua eta oraingoz sailkapenean lau positiboz dagoena. Ez da bat ere erraza izango, baina arrasatearrentzat ezinbestekoa da garaipena, aspaldian ez dute partidurik irabazi eta. Partiduari, neguko ordutegiarekin jarraituz, arratsaldeko 3.30etan emango zaio hasiera.

ITSASKI
arrandegia
Arrain freskoa
eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa
Arrasate 79 98 94

Gabriel Elorriaga Dka.

Loditasuna • Zelulitia
Zelulolipolisiaren
tratamendua

Santa Kruz, 24-1ª (1ª C Eskailera)
ARETXABAETA Tfnoa: 79 13 54

HUETO Doktorea

**Eztarria, sudurra,
belarriak**

Txanda eskatzeko: 79 81 11
79 81 00

Olarte kalea, 43 Arrasate

IZASKUN HERIZ

Saskibaloia eta eskiatzea gustokoak

Izaskun Herizek 19 urteko gazte arrasatearrak, goizez ikasi, arratsaldez beka bat dela eta Arrasate Pressen lan egin eta ondoren kirola egiteko astia ere hartzen du; nahiz eta kirolari nahi beste denbora eskaintzen ez dion.

Izaskunek egiten duen kiroleriko bat saskibaloia da. "Ikastolako taldean hasi nintzen jokatzeko, niken nuen zaletasunik, baina etorri zirenean esaten saskibaloia talde bat osatu behar zutela eta probatzea erabaki nuen. Futbola ere probatu nuen baina hasiera batean pentsatzen nuenaren kontra, nahiago dut saskibaloia". Emakumeen saskibaloitalsea iaz mailaz igo zen, Regionaletik Euskadiko 2. mailara hain zuzen ere. "Pasa den urtean mailaz igo ginen eta ondo, baina aurtengo urtean nire ustez normala den arren, oso partidu gutxi irabazi dugu".

Neska gazte honek, hango eta hemengo kantxetako erretzetan jokatzeko du, ezker zein eskuinaldean. "Aleroko postuan jokatzeko du eta gehiago gustatzen zait erasotzea defenditzea baino. Ondo defenditzea garrantzitsua da, baina ea nork nahi duen defenditzea, gehienoi erasoko jokoa gustatzen zaigu eta".

PODIUMA



Ez da hemen bukatzen Izaskun Herizek duen zaletasuna kirolarekiko, beste kirol bat ere egiten bait du, eskiatzea hain zuzen ere, gainera denetik gehien gustatzen zaiona hori omen da. "Ikastolan 7. mailan genbiltzela eskiatzerakoan ginen eta orduan urteroko joaten naiz, dudan aukeraren arabera. Iaz, esate baterako, aste bete oso bat eta hiru asteburutan joan nintzen".

Nahiz eta hasieran askotan jausi, badirudi horregatik ere eskiatzeari ez diola beldurrik hartu. "Hasieran poliki ibiltzen jausterakoan denek ez da min gehiegirik hartzen, orain askoz kolpe handiagoak eta txarragoak hartzen ditut". Urtero, joaten den lehenengo aldian erdi galduta egoten da. "Hasieran igeritzen da ia urtebete eskiatzeke egon naizela baina aldapa bat jaitsi orduko beste edozein aldapa jaisteko prest egoten naiz".

◆ Centraljet berriro irabazle

Arrasateko saskibaloia taldeko mutiak ondo baino hobeto dabilta aurtengo denboraldian. Joan den igandean ere, ez zuten partidua irabazteko zailtasunik izan. Arrasatearrek maisutasun handiz jokatu zuten, kantxako jaun eta jabe izan ziren eta azkenean markagailuan Centraljet Euskal Air 93 Amigos del Baloncesto 71. Datorren astean, irabazteko aukera handiarekin, Muebles el Paraiso taldearen aurkako partidua.

◆ Rugbykoak nagusi Gernikan

Sei ihardunaldi garaipenik eskuratu barik, eta azkenik, rugbyko jokalariek Gernikako zelaitik ekartzea lortu zuten. Partiduko lehen zatian primeran jokatu zuten arrasatearrek, ondorioz atsedendaldirako markagailuan 3 eta 21eko emaitza zuten beraien alde. Aurrez lortutako abantailari eusteko helburuz zelairatu ziren arrasatearrak bigarren zatian, beraz jokoa ez zen lehen zatian bezain polita gertatu. Dena dela, helburua bete zuten eta azken emaitza 11 eta 27koa izan zen, arrasatearren alde.



◆ Tenis-Txapelketa

Hemendik denbora gutxira, Muskolako kiroldegian binakako tenis txapelketari emango zaio hasiera. Txapelketa honetan parte hartu nahi duen edonork, bere izena eman dezake Muskolan bertan. Izena ematearren ez da ezer ordaindu behar eta bulego-orduetan bertara joatea nahikoa izango da.

ZUBIZARRETA
TAILERRAK

Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE Tfnoa: 79 15 65

Hilbera
kafetegia

Uribarri Etorbidea
ARRASATE

Altzariak
Diseinua
Apainketa
M
ARENAZA

Bizkai, 1 ARETXABALETA Tfnoa: 79 08 07

KONTUZ!



TELE

**Informazioa
eskatzeko
dei egin
77 08 15
tfno.ra**

**SUKALDE-
-ALTZARIAK**

- Iker € 79 00 43
- Joxe Aranzabal
€ 79 18 92

Profesional,
merkatari,
enpresari! Zure
zerbitzuak
arrasatear guztien
etxeetara iristea
nahi baduzu, ATBko
TELETESTUA da
behar duzun
publizitate-bidea.

Pintore, iturgin,
igeltsero eta beste
edozein
profesionalen
zerbitzuak behar
badituzu, jo ezazu
ATBko TELETESTUra,
behar duzuna
hantxe aurkituko
duzu eta. Egunero
zure zerbitzura,
goizeko 9etatik
arratsaldeko 8ak
arte.

TES

ARGAZKIDENDAK

- Pedro Luis € 79 75 15
- Laso-Arregi € 79 12 75

TUA

TABAKODENDAK

- La Rotonda € 79 20 13

IGELTSEROAK

- Jose, Grille € 79 69 39

KIROLDENDAK

- Arrasate Kirolak
€ 79 46 12

**EDARI-
-BANATZAILEAK**

- Jose Antonio Hernandez
€ 79 15 32

OPARIDENDAK

- Goiztiri € 79 87 43

**ETXERAKO
ELEKTROTRESNAK**

- Aranzabal € 79 15 16
- EYA € 79 03 84

Radar azpitik mendi gainera

Goizaldeko 6.30ak jota gero, Arrasate-tik eta Aramaiotik batutako jendeaz, autobusa bete bideratu zen Bardeetarantz, Piskerra eta Railon mendietara igotzeko asmoarekin.

Bederatziak inguru ziren autobusak Bardeetako Koa-telaren inguruan utzi gintue-n. Mendiak parean genituen. Tartean, tomillo-usain fuertez, lautada isil negargari bat geneukan, ez arbolarik ez errekarik, paraje monotonoa, lasaiegia, baina zeharkatu beharrekoa mendietara hel-tzeko. Lautada erdian, tiro-poligonoa zegoen debeku-karte-iz inguratua eta bigilantzia torretaz zaindua. Baina zer da hori Besaidekoen azeritasunerako? Asuntua da poligonoa inguratu beharrean, zeharkatu guran 60 lagun po-ligonoaren erdian plantatu gina, inork ezer esan barik eta inongo alarmak jo gabe. Poli-gonoaren erdian eta militarren despistearekin umeak lez ari ginen: Hau ikutu, horra igo, eman erretratu bat, ikusi hau!,




jode zenbat txatarra... milita-rrak, berandu batean, kontura-tu arte.

Land Rover batean etorri ziren kabo bat eta hiru soldadu metraileta eta guzti egundoko abiaduraz eta umore ilunaz. Artzaiak ardiak lez batu gin-tuzten, denoi karnetak eska-tzeko. Eta beharleku galanta izan zuen kabo gizarajoak de-non berri jasotzen.

Azkenean, bronka entzun eta gero, poligonoko bonba, tanke, hegazkin eta gerrarako bestelako material artetik ir-ten eragin ziguten. Irtete-rakoan, aurpegi irribarretsua ikusten ziren, gura barik baina adarra jo genien sentsazioa geneukan denok ere. Ondoren, mendiak. Oso politak!

Hankamotz



NAROKI

Erdiko kale, 23 ARRASATE Tfnoa: 79 20 47



Zerkaosteta, 5
ARRASATE

Txibisto gainezka jai giroan

Protagonista: *The Blues Brothers Band*. Bai, benetazkoa. Bi «anaiak» iada ez daude (lurpean bata), baina bandako jatorrizko bost taldekidek taldea berrosatu zuten 88an, eta ordudanik handik hona dabilta, jotzen duten txoko guztietako ikusle-goa dantzan jartzen.

Txibiston ez zen, ez, bestelakorik gertatu: Aretoa jendez gainezka eta sekulako martxa gogoia airean.

The Allnighters gasteiztarrak, ondo. Ez zen ikusten nituen lehen aldia, eta esan behar badaukala xarma berezi bat talde honen rithm & blues klasikoak. Giroa berotzeko oso aproposa.

The Blues Brothers Band...nola esan?... Zoragarria! Aspaldi ez nuela ikusten Txibisto oso bat dantzan eta izerditan; hamar tipo antzeztoki gainean



publikoarekin guztiz bat eginda, entregatuta; «espontaneoak» dantzan eskenatokian, dagokion «matoia» behera botatzera azaldu gabe; ia bi ordutako saioa (halere, laburregia gehienon gogoarentzako);... eta espero zitekeen bezala, soinu bikaina eta primerako musikoak (bakoi-tzaren kurrikulumak irakurrita ez da harrizkekoa).

Bukatzeo, talde honek, etapa berri

honetan bere lehen diskoa duena, 1988.eko Montreux-eko jazzaldian grabatu zuela («Live in Montreux», WEA-1988) eta bigarrena irtetear dagoela. Beraz, adi egon: Soul eta Rithm & Blues talde superzoragari honenegandik ezin ezer kaxkarrik espero.

Datorren astean, gehio.

PATXI MONTERO

◆ Gamma Ray

Larunbat honetan, gaueko 11etatik aurrera, heavy metal kontzertu potentea daukagu Txibiston: Rage (telonero gisa) eta *Gamma Ray* germaniarrak (Kai Hansen kitarjole ospetsuaren talde berria). Kaña gogoaz bazabiltza, badakizu nora joan; 2000 pela ordainduta, jakina.

◆ Matraka Aretxabaletan

Larunbat honetan, hilak 7, Aretxabaletako Gazte-txean *Matraka* taldearen kontzertua izango da gaueko hamaiketatik aurrera. «Matraka» taldea, gehienbat, lehen *Belladonna* zeneko partaideek osatzen dute, neskaz osatua zegoen taldekoek, hain zuzen ere. *Mairakak* honek orain gutxi kaleratu du bere bigarren diskoa.

◆ SS-77 eta Heriotza Elorrión

Larunbatean, gaueko 10.30etatik aurrera Elorrioko Gaztetxean *SS-77* eta *Heriotza* taldeek kontzertua eskainiko dute. Honekin, *SS-77* talde arrasatearrak bere etapa berriko laugarren kontzertua emango du.

IKAS TA ROA

**GABONETAKO ETXE
APAINKETA**

EMALEA: ROSARITO GARITANO
(IASAGABASTER DENDAKO DEKORATZAILEA)

EGUNA: ABENDUAK 11
ORDUA: ARRATZALDEKU 3 RETAN
TOKIA: AED ELKARTEA
ANTOLATZAILEA: "EKIN"
EMAKUME TALDEA AED

◆ **Letonaren artxiboa**

Jose Letona historiagilearen alabak, Maitek, artxiboa utziko dio Arrasateko Udalari; horren truke, Udalak artxibo osoaren kopia bat egin eta berari eman beharko dio. Artxiboan, guztira 460 argazki, gehienak gaur egun desagertutako baserrienak, 11.000 dokumentu eta 315 plano daude.

Letonaren artxiboko kopia egiteko, Udalak 420.000 PTAko aurrekontua dauka. ASA argazkilari-taldea izango da kopia egiteko ardura hartuko duena. Beraz, aurrerantzean, arrasatear guztiek izango dute Jose Letona historiagilearen artxibo aberatsa erabiltzeko aukera.

◆ **Seaskaren Egutegiak**

Urtero bezala, Seaskak, Iparraldeko Ikastolen Elkar-teak, datorren urterako Egutegiak argitaratu ditu baita salgai jarri ere. Arrasaten, eskuratu nahi dituenak poltsikoan 300 PTA izan eta honako toki hauetan eska ditzake: Arrano, AED, Hire, Ttukun, Batzoki, Amaiur, Erdu/AEK Euskaltegi, Udal Euskaltegi eta ikastoletan.



Anton Herrero

Kazetaritzatik zine-mundura publizitatean bukatzeko

Anton Herrerok Kazetaritza ikasi zuen Leioan. Hura bukatu eta gero, Madrilera joan zen Ikus-entzunezko medioei buruz ikastera. Ikasketak bukatu, Arrasatera itzuli eta emaztearekin batera publizitate agentzia ireki zuen ia.

— Bizitzan joan-etorri asko, ez?

— Leioara Kazetaritza ikastera joan nintzenean, ez nuen lan horretan aritzeko aparteko gogo edo bokazioirik. Idaztea gustatzen zitzaidan, baina literatur arloan gehiago. Leioakoa bukatu eta gero, gehien zinea gustatzen zitzaidanez, Madrilera joatea erabaki nuen. Dena dela, gustok gauza bat dira eta poltsikorako atera beharra beste bat; ondorioz, hona itzuli nintzenean publizitate agentzia zabaltzeko aukera ikusi nuen, eta hortan dihardut.

— Literatura gustoko, zinea gustoko... arlo kreatiboak azken finean. Publizitateak badu zer ikusirik horrekin?

— Gaur egun, sorkuntza eta merkatua biltzen dituen arlo bakarrenetarikoa da. Agentzian, "ART-G"n, lana



bi zatitan bereiztua dugu: emazteak, Arte Ederretako ikasketak egin ditu eta diseinuari dagokion gehiena berak egiten du; bestetik, nik testuak egin eta publizitate-kanpainaren planifikazioa prestatzen dut. Testuetan, zuzenak izan beharrean askotan metafora ugari eta erabiltzen ditugu, nolabait espektatibak sortarazteko.

Publizitatearen munduan sorkuntza eta merkatua elkartzan dira

Alde horretatik, emaztearena ezezik, nirea ere sorkuntza lana da. Gainera, askotan lan biak nahasten ditugu.

— Orain zinegintzatik guztiz aparte?

— Zinearen arazorik larriena, subentzioen beharra da. Hau da, aurkezten diren proiektu guztientzat ez dago dirurik; gainera, kontuan hartu behar da, ia ez dagoela ekintza pribaturik.

Nire aldetik gogoia eta asmoa badago zinean aritzeko, laburmetraia batzuen gidoiak eginda dauzkate eta datorren urtean aurkeztuko ditut, baita telebistan emateko serie batentzat ere.

— Publizitatearen mundua utziko zenuke proiektu horiek gauzatzeko?

— Ez, oso zaila bait da hortik bizitzea.

— Bezeroek asko eskatzen dute?

— Jendeak badaki publizitatea beharrezkoa dela edozertan arrakasta izateko. Jendeari kanpaina planifikatuak eta estrategia jakin batzuk eskaintzen dizkiogu. Konforme badaude, aurrera egiten dugu, baina beti ere bezeroarekiko harremana galdu barik.

Berango



**Sukalde-altzariak,
mahaiak eta
aulkiak**

Erakusketa: Legarre pabiloia z/g, Gipuzkoa etorb. Tfnoa: 79 01 92 ARRASATE

Gazte, ez zaitzatela mantso

Gaur egungo gizartearen, eta konkretuki gazteen, arazoak asko eta larriak dira, denak ondorio konkretu batzuen ondorio izanik.

Gazte izateak, era batera edo bestera, bereiztu egiten gaitu, ikuspegi berriak, dagoenarekin kontraesana eta gazte izatearen berezko errebeldia. Hortaz, gazte izateak aldaketa esan nahi du. Hori kapitalismoak ondotxo daki, horrexegatik arduratzen da indar hori ahuldu edo desbideratzen. Prozesu hau oso gaztetandik hasten da eta horretarako erreminta bezala familia, erlijioa (bere eredu sexual eta moralekin), eskola, jolasak, propaganda, modak, komunikabideak, unibertsitatea, soldaduzka, lana... Hauek denak beren errepresio, mehatxu eta txantaiekin.

Beste aldetik, oso gizarte "polita eta demokratikoa" erakusten digute, beronen akatsak gorde eta



isildu egiten diren bitartean, baina gizarte honen sasi-bentajak gazteok oso ongi ezagutzen ditugu: militarismoa, gure mendi, ibai, itsaso eta airearen deusezpena, gure hizkuntzaren desagertzea, irakaskuntza kompetitibo eta bertikala, gazte gehienak langabezian edota esklabu gisa lanean, gizarte patriar-

kal eta suntsitzailea, gartzelak beteta han eta hemen, etxebizitzaren beharra, alternatiba-eza, era guztietako drogen eraso, soldadutza...

Noiz arte horrela? Gazteok ideiak eta ekintzak sorterazi behar ditugu eta horretarako medioak behar ditugu.

Ez zaitzatela mantso!



XABIER ATXA.
JARRAI-KO MILITANTEA

IKAS TA ROA

SUKALDARITZA

- "GABONETAKO JAKI BEREZIAK"
- EMALEA: ALBERTO ELORZA
- "ZELAI ZABAL" JATEXEKO SUKALDARIA
- EGUNA: ABENDUAK 30 ASTEARTEA
- ORDUA: 3'30 ETAN
- TOKIA: SAN ANDRESEKO "TORREPE" ELKARTEA
- ANTOLATZAILEA: "EKIN" EMAKUME TALDEA. AED.

ETXEBIZITZAK

- Bi oheko gela alokatzen da. Tfnoa: 79 07 73.
- Etxebizitza baten bila gabiltza Arrasaten. Dei egin lanorduetan 79 02 11 (Alberto) eta 79 36 11 (Izaskun) tfnoetara.
- Munarren etxebizitza salgai. Eguzkitsua, eraberritua, sukaldea guztiz ekipatua, 2 bainugela, 3 logela, egongela, trastetegia, berogailua gas naturalaz, etxe guztian musika sistema, satelitezko TB gela guztietan, terraza polita ikuspegi ederrarekin, telefonoa, sotoa, garajea aukeran. Tfnoa: 77 02 81. Gaueko 9.30etatik 11etara.
- Santa Teresa 6, 3. ezkerreko etxebizitza salgai dago bai atarte berebean dagoen bezero oneko ileapaindegi lokala ere. Tfnoa: 79 03 64.
- Eskoriatzan pisua osatzeko neska baten bila gabiltza. Tfnoa: 81 66 24

- Neska euskalduna behar da goizez ume bat zaintzeko eta arratsaldean etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 79 94 92.
- Magistaritza eskolako ikasle batek OHoko klase partikularrak emango lituzke. Dei egin 79 08 00 tfnora.
- Lanak ordenadorez inprimatuko nituzke. Dei egin 7etatik 9etara 79 58 72 tfno.ra.
- Frantseseko klase partikularrak emateko irakaslea behar da Aretxabaletan. Dei egin 79 02 96 tfnora iluntzean.
- Neska prest OHoko klase partikularrak emateko. Dei egin 77 11 84 tfno.ra 5etatik 6.30etara eta 8.30etatik aurrera.
- Klase partikularrak ematen dira (fisika, kimika eta matematika). Dei egin 77 13 95 tfnora.
- Emakume euskalduna etxeko lanak egin edo umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tfnoa: 79 07 73.
- Irakasle Eskolako ikasle batek OHoko neska-mutileri emango lizkieke klase partikularrak. Tfnoa: 79 94 04. 6etatik 9ak arte. M^a Jose.
- OHoko klase partikularrak ematen dira. Eskoriatzako Irakasle Eskolan ikasten gaude, eta esperientziadunak gara. Dei egin 79 14 33 Tfnoa. Esther.
- Magisteritza Eskolako ikasle bat, OHoko klase partikularrak emateko prest legoke. Dei egin 79 74 03 tfnora.

- Logelako aitzariak, armairu, komoda, etab. (somierra eta koltxoia ezik) egoera onean eta merke. 8etatik aurrera 79 41 71 tfnoan.
- Olivetti Linea 98 Idazmakina salgai. Tfnoa: 79 11 44. 9etatik aurrera. Miren.
- Renault Expres SS-AC egoera onean eta oso merke salgai. 45.000 Km. Tfnoa: 79 82 41.
- Pegaso J4 furgoneta egoera onean salgai (6 urtekoa). Dei egin 79 26 81 eta 77 01 79 tfnoetara.
- 4 tokitako sofa salgai. Estreintatu berria eta oso egoera onean, modernoa eta oso merke. Deitu lan-orduetan 79 62 80 tfnora. Rosa.
- 80cm-kosomier eta koltxo berri-berriak salgai. Tfnoa: 79 62 80. Rosa.
- Autorako erremolke salgai. Tfnoa: 79 45 12.
- Eskupeta paraleloa oso egoera onean salgai. Tfnoa: 79 45 12.
- Birkientzat kotxe-aulkia salgai, oso egoera onean dago. Dei egin 10etatik aurrera 94-658 21 97 tfnora. 10etatik aurrera.
- GAC First mobilette salgai. Dei egin 79 45 74 tfnora. Aitor.

LANA

- Etxeko lanak egin edo umeak eta pertsona nagusiak zainduko nituzke. Tfnoa: 79 54 03
- Neska euskalduna behar da etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Tfnoa: 79 90 57. Aretxabaleta.
- Eguerdiko 12.30etatik 1-etara euskarazko mintzapraktika-klaseak emateko Arrasateko pertsona bat behar da. Dei egin 76 15 76 tfno.ra arratsaldeko 8.30etatik aurrera. Reyes.
- Igelesezko klase partikularrak behar ditut. Dei egin 8etatik aurrera 79 72 92 tfno.ra. Marisol.
- Zure lana utzi barik 10.000 PTA irabazi nahi badituzu, dei egin 77 14 81 tfnora.
- Neska prest etxeko lanak eta garbiketa orokorrak egiteko. Tfnoa: 79 98 19.

SALEROSKETAK

- Oso egoera onean dagoen eta egurrez nahiz ikatzez dabilen berogailua salgai. Tfnoa: 79 45 80
- Orbea furia bizikleta oso egoera onean salgai 10.000 PTA. Dei egin 79 41 71 tfnora 8etatik aurrera.

DENETARIK

- Bilbora (Leioara) arratsaldez bazoaz, dei egin 79 22 63 tfnora, gaueko 9.30etatik aurrera.
- Jon Rodriguez-i bere urtebetetze-egunean zorion handi-handiak Zamoran dagoen bere aitaren partez.
- Betaurreko bifokalak galdu ditut. Dei egin 79 57 58 tfnora. Saritu egingo dut.
- Katu-oin bat galdu dut Aretxabaletatik Arrasaterantz. Tfnoa: 79 25 15.



**ARRASATEN
HILDAKOAK**



Angel Goñi Gorriz,
azaroaren 28an. 57 urte.

**ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK
DEBALDE DIRA. TESTUA IDATZI ETA
BIDALI GURE BULEGOETARA**

TESTUA:

.....

.....

.....

.....

.....

Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE

Tfnoa: 77 08 15

Zer nahiago?

Juan Luis Arejolaleiba AEDkoa



- **Bertako euskara ala batua?**
Normalean bertakoa, baina hainbat gauzatarako batua.
- **Larunbat gauean parranda egin ala igande goizean mendira joan?**
Txandaka, biak dira beharrezko.
- **Lan burokratikoak ala kaleko aktibismoa?** Tartekatuz, baina gustorago lan praktikoetan.
- **Argia ala Arrasate Press?**
Ezberdinak dira, batak ematen didana ezin dit besteak eman.
- **Afaria prestatu ala ontziak garbitu?** Ontziak garbitu.
- **Ondo ordainduta eta tentsioan ala gutxi ordainduta eta lasai?** Bigarrena, nahiz eta hori zer den jakin ez.
- **Buruko mina ala hagineta mina?** Ez bata, ez bestea. Buruko mina maizago izaten dut.
- **Gazta ala txistorra?** Ardo onarekin biak berdin.
- **Kartelak jarri ala boletoak saldu?** Kartelak jarri, "eskatzea" sarritan ez da eroso izaten.
- **Irakurtzekotan, eskelak ala sailkatutako iragarkiak?** Nahiz eta gustoko ez izan, eskelak.
- **ETB ala ATB?** Ordutegiagatik ETB ikusten dut.
- **Folio txuriak ala koadrikulatuak?** Txuriak.
- **Rosli ala Farias?** Ondo afalduz gero Farias, bestela Rosli.
- **Oporrak, mendian ala itsasoan?** Erdi eta erdi, lehenengo mendian eta gero itsasoan.
- **PSOeko euskal zalea ala abertzale erdalduna?** Ez bata eta ez bestea, abertzale euskaldunak behar ditugu.
- **Bizarra kendu ala hortzak garbitu?** Nahiz eta bietarako nagia izan, bizarra kendu.
- **Ruper ala Hertzainak?** Negu Gorriak.

Bertsotan

San Nikolas

1

Kriskitin krasak bihurtu dira txikitxoan debozio, neska ta mutil alkarren kontra eta alkarren sozio. etxeko edonor, zure esku da haiek dutena desio hiru, lau piku ximelak eta mila kilo ilusio.

2

Gerta liteke batzuk ixilik besteak ari ta ari, hutsaren truke ezin da jaso goitik behera mana hori bihotz zabalik badago ere, tranpan ez bedi erori gauza gozorik ez bota behintzat kantatzen ez duenari.

ION IÑAKI IZARZELAIA



Kabia altzariak

Gipuzkoako Etorbidea, 28 ARRASATE Tfnoa: 79 27 70

ARGI PLASTIC. C. B.

PVC eta aluminiozko leihogintza

Berria Arrasaten! Diseinu berriak!

Axeri, 3 ARRASATE
Tfnoak: 77 02 40 / 77 11 30



A

rgazkiak ondo adierazten duenez Musakolako Batzokiaren inaugurapenean jende ugari izan zen.

1934. urtea

zen, maiatz ingurua. Inaugurapen ekitaldirako Telesforo Monzon etorri zen Musakolara, bere emaztearekin. Gure informazio-iturriek ez zuten gogoratzen Monzonek ekitaldi politikorik egin zuen edo ez, baina

suposa daiteke horretara etorriko zela. Bertsolariak behintzat egin zuten saio txoren bat.

Musakolako Batzokia, Mojategirako bidean zegoen, Bixente Zeziaga "Osiña"ren taberna gainean.

Batzokiak ez zuen denbora gehiegi zabalik iraun, gerraz batera itxi egin bait zuten. Ikurriñaren goikaldean, Jaungoikoa eta Lege Zaharraren adierazgarri zen ikurra ikus daiteke. Telesforo Monzon-en inguruan jende asko bildu zen argazkirako. Hor zeuden, besteak beste, Angel Arana eta Angel Garai "Zeleta" tanborileroak, Felix Ugalde, Martin

Egidazu, Tomas Urrutia, Patxi Mendikute, Juanito Zabaleta, Xabin Garai, Klara Zeziaga, "Saburdi"ko hiru edo lau anai, Daniel Barrutiabengoa, Mateo Murua, Bixente Arana, Juan Barrutiabengoa, Pablo Arizabaleta, Ramon Gorosabel, Felix Garai "Makatz", Modesto Barrutiabengoa, Jose Mari Garai, Nikolasa Arana, Maria Gorosabel, Luisa Arregi, Beatriz Erguin, Francisca Erguin, Klara Gorosabel, Rikardo Gorosabel, eta Jabier Zelaiaundi.


URONDO
elektrizitatea



Nafarroa etorbidea, 11 Tfnoa: 79 78 15 ARRASATE

- * Elektrogaiak
- * Instalazioak
- * Automatismokak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak
- * Proiektuak

zeppelin



Loramendi, 3 etxabea
ARRASATE Tfnoa: 79 74 09



ARIES

Martxoaren 21etik
Apirilaren 20ra

Gustoko dituzun ekintzetan parte hartuko duzu. Pozez zorutzen ibiliko zara. Buruargi ere egongo zara; ikasten badiharduzu momentu ona duzu oraingoa probetxua aterateko. Lagun ugari egingo duzu.



LEO

Uztailaren 23tik
Abuztuaren 23ra


Zeure nahiak betetzeko erabiliko dituzun hitzak aproposak izango dira. Baior ari zara arlo guztietan eta ondorioak berehala antzemango dituzu. Maitasunak itsutu egiten zaitu eta askotan ez direnak ikusten dituzu.



SAGITARIUS

Azaroaren 23tik
Abenduaren 21era

Ekintza askotan parte hartuko duzu egunotan. Aspertzeko asti barik egongo zara eta beharbada egonean egoteko denbora pixka bat faltan botako. Gehiegikeriatan ibiltzearen ondorioz ez zara oso osasuntsu egongo.



TAURUS

Apirilaren 21etik
Maiatzaren 20ra

Maitasuna izango duzu protagonista zure barruan. Eginbeharra zuk nahi bezain perfektu betetzeko eragozpenen bat suerta liteke. Aspaldiko lagunekin egoteko beharra sentituko duzu, har ezazu telefona.



VIRGO

Abuztuaren 24etik
Irailaren 23ra

Dibertigarriak izango dira datozen egunak. Jolasa, barre eta algara izango dira, bai, zu zauden tokian. Baior egongo zara eta lan-arloan aurkez litezkeen traba guztiak erraz pasatuko dituzu. Bizipoza.



CAPRICORN

Abenduaren 22tik
Urtarrilaren 20ra


Bitaminak hartu beharrean zaudete. Geldo samar zabilta eta eginbeharra, poliki poliki bada ere, aurrera ateratzea derrigorrezko izango duzu. Egizu ariketa fisikoa odola bizkortzeko, bestela izoztu egingo zaizu.



GEMINI

Maiatzaren 21etik
Ekainaren 20ra

Hartueman ugari izango dituzu datozen egunetan. Ekintza askotan parte hartuko duzu. Arazoei buelta gehiegi emango diezu eta gupil zoroetan murgilduta ibiliko zara. Tirabiraxoren bat suerta liteke ondorioz.



LIBRA

Irailaren 24etik
Urriaren 23ra

Triste samar emango dituzu egun hauek pasatako garai alaiagoak burura etorriko zaizkizulako edo. Badirudi egunerokotasunak bereganatu egin zaituela. Jarrizu pipermin pixka bat egiten duzun gauza guztietan.



AQUARIUS

Urtarrilaren 21etik
Otsailaren 19ra

Pertsona alaitzat ikusita zaudete eta dudarik gabe hala da. Haizeari ere barre egingo diozu datozen egunetan eta bat baino gehiago aho zabalik utziko. Jarraitu horrela, barrea baino botika osasuntsuagorik ez bait da.



CANCER

Ekainaren 22tik
Uztailaren 22ra


Lanari emango diozu lehentasuna; energia asko gastatuko duzu eta patxaraz ibiltzea komenigarri izango zaizu zeure onetik ez ateratzeko. Argi ibili ingurukoekin bekaizkeria somatzen bait da. Langile.



SCORPIO

Urriaren 24etik
Azaroaren 22ra

Aspaldian ahaztu samar eduki duzun lagunarengan arreta pixka bat jartzeko momentu egokia duzu oraingoa. Bion arteko harremana berpiztea izango da betebeharrak nagusia; behingoz etsizu behintzat.



PISCIS

Otsailaren 20tik
Martxoaren 20ra


Dirua eruz gastatzeko joera izango duzu, festarik festa ibiltzeagatik. Dagoenean bonbon eta ez dagoenean egon pentsatzea izango duzu onena, bitartean fenomeno pasako bait duzu. Lagun-interesgarriren bat egingo duzu.

Azaroaren 15etik abenduaren 15era Citroën ZX bat probatzeagatik BIDEOKAMARA baten zozketan parte hartuko duzu.

CHAPIME TAILERRAK. ARRASATE

CITROËN ZX





Agur Erretratoari! Ostegunean, 9.15, azken saioa

ATB martxan jarri zenetik (laster beteko dira bi urte) astero-astero izan duzue zuekin Joxe Ramon Elortza, Erretratoa elkarrizketa-saioaren arduradun eta aurkezlea.

Bidea luzea izan da, 70 programatik gora, eta merezitako atsedena hartzeko ordua iritsi zaio. Datorren astean, ostegunean, azkenengo saioa eskainiko digu, gonbidatu moduan Jose Luis Armendia Yoga taldeko arduraduna ekarriko duelarik.

Agurraren orduan, milesker, jaina, eta ondo segi!

Telebegi

Gaiean dauzkagu da-goeneko. Jainkoak edota Deabruak lagun gaitzala, eta irreberentzia handiegia ez bada, biak lagundu gaitzate-la.

Ez, gaurkoan, hitzurre obligatu hau ezik, ez dut kate pribatuez hitzik esango, nazkatua naukate jadanik. Oraingoan konkurtsoez lau hitz esatea pentsatu dut, ez da hau eta zoritxarrez pribatuen kotoa. Hala balitz, gaitz erdi. Herrialde hau, Kasino erraldoi batean bihurtzen ari da. "Un Dos Tres", "La ruleta de la fortuna", "Kalejira", "VIP noche", "El precio justo", "Estrellas en juego", eta Patatin eta Pataton. Las Vegas, gure pantailetan eskaintzen digutenarekin konparatuz, Exin Castillos-ekin egindako eraikuntza litzateke.

8, 10, 15 milioi, kotxea, bidaia, milioi gehiago, elektraigailuak... Telebista, loto, bonoloto, primitibo, moderno, kiniela eta asmatzeke dauden joku guztiek in egindako collage absurdoa da.

Nire anaia txikiari handitzean zer izan nahi zuen galdetu nion joan den egunean; hark, konkurtsantea izan nahi zuela erantzun, eta milioiak irabazi, eta kotxea, eta apartamentua, eta milioi gehiago. Sekretuan, eta lotsa-izpi batekin nik ere hala nahi nuela pentsatu nuen.

Orain, ATB-n sartzeaz daude. Gauzak honela, eta guzti honen aurrean, ez galdetu niri arazo existentzialik ba ote daukaten, zinikook ez dugu horrelako arazorik izaten eta.

ANDONI URZELAI

Mondra-Gol

Aste honetan:
Mondra-Gernika

Igandean
9.15etan

Erreportaiak

• Txarri-Boda
• Akordeoi-Txapelketa

Asteartean
9.15etan

Txatxaran

Felix eta Alberto
Iñurrategi anaiak

Asteazkenean
9.15etan

Programazioa

8

IGANDEA

9.15etan, **Mondragol**. Mondra-Gernika partiduaren ordu erdiko laburpena.

9

ASTELEHENA

8, 8.30 eta 9etan, **Berriak**. ATBren albiste-emanaldia.
9.15etan, **Mondra Sport**. Arrasateko Kirol-mundua-
ren errepasa.

10

ASTEARTEA

8, 8.30 eta 9etan, **Berriak**. Egu-
nean zehar jasotako berriak.
9.15. **Erreportaiak**. Aste hone-
tan, Txarri-Bodari buruzko lan
bat, eta astebukaeran Arrasa-
ten antolatuko den Gipuzkoako
Akordeoi Txapelketaren la-
burpena izango dituzue ikus-
gai.

11

ASTEAZKENA

8, 8.30 eta 9etan, **Berriak**.
ATBren albistegia
9.15. **Txatxaran**. Aste honetako
gonbidatuak: Felix eta Alberto
Iñurrategi anaiak, orain gutxi
Makalugailurrera iritsitakoak.

12

OSTEGUNA

8, 8.30 eta 9etan, **Berriak**. Al-
bistegia.
9.15. **Erretratoa**. J.R. Elortzak
zuzendutako elkarrizketa
saioa. Gonbidatua: **Jose
Luis Armendia**, Arrasateko
Yoga taldeko arduraduna.

13

OSTIRALA

8, 8.30 eta 9etan, **Berriak**. Al-
bistegia.
9.15. **Ostiral Musikala**: Arra-
sate Musikali eskainitako
saioa.
9.45. **Musika-emanaldia**:
Arrasate Musikalek eta Ma-
nuel Iradier abesbatzak
Mozart-en Requiem-a.

CALIBRA

by Opel



BENETAKO INGENIERIA ALEMANA

Zaldi hegalarien muturra, argi elipsoidal iraultzaileak eta spoiler integratuak.
150 zaldi arteko potentzia duten motorrak,
katalitzailedunak, 16 balbula, injekzio elektronikoa eta trakzioa aurrekaldean edo lau gurpiletara dutenak.
Eta, horretaz gain, honokoak dituen serieko ekipamendua: **ABSa, direkzio**

lagundua, aire egokitua, chech-control-a, irrati-kasette estereo, lapurreten kontrako alarma, aleaziozko llantak, leihoigotzeko elektrikoak, sarraila zentralizatuak...

Prezioa 2.0.i: 3.057.500 pzta.*
Prezioa 2.0.i 16 B.: 3.627.500 pzta.*

Fabrikanteak aholkatutako prezioa (Penintsula eta Baleareetarako).
Garraioa, BEZa eta entregatu aurreko gastuak barne.



Zain gaituzu

TALLERES OLA, S. L.

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46. BERGARA (Guipuzkoa)
Erakusketa ARRASATEn: Loramendi, 2. Tfnoa: 79 05 86
DEBA ARRO. LEINTZ BAILARA ETA GOIERRI GARAIrako
kontzesionaria

Zerbitzu Ofiziala ARETXABALETAn

TALLERES NORTE

Pol. Ind. BASABE. Pabellón A-13. Tel. 79 62 65

Esperientziaz onenak

OPEL 
Kontzesionario ofizialak